

hiruka

232. zenbakia
2026ko ekaina

JAIK ATE-JOKA

Uda sutan blai

Maria Goiricelaya Buron



«Antzerkia
hausnarketarako
espazio bat da»

24-27 | Berbetan

Goitibera konpainia

«Kaleko antzerkia
aretokoa baino
demokratikoagoa da»

32-33 | Kultura

Kepa de Castro

«Saskibaloiaz
gozatzea da
helburua»

36 | Kirolak

49. Nazioarteko Jazzaldia
 49º Festival Internacional de Jazz
UZTAILAK 1-5 JULIO

**MOISÉS
 P. SANCHEZ**

GETXO JAZZ 2026

**CAMILLE THURMAN
 & THE DARRELL
 GREEN QT.**

**CHARLES LLOYD
 QUARTET**

**SKETCHES OF
 LATIN MILES**

**IMMANUEL
 WILKINS
 QUARTET**



k Sareari sartzean, **Kutxabank Sarea**
 weba da erabilien. **Muxikebarri**
 www.kutxabank **Romo Kultur Etxea**
 .es Kutxabank **Cantera**
 multiserbizioa

Egitaru osoa
 Programa completo



www.getxo-kultura.eus

Antolatzailea · Organiza

Babesleak · Patrocina

Kolaboratzaileak · Colabora



Aurkibidea

- 4 Iritziak eta Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Uribe Kosta jaietan
- 14 Herriak
- 20 Umore Azoka irudietan
- 24 Maria Goiricelaya Buron, antzerkigilea
- 30 Kakarraldone: belardiak
- 32 Ander Basaldua eta Saioa Iribarren, Goitibera konpainia
- 34 Itxartu Dantza Taldearen 50. urteurrena
- 36 Kepa de Castro, kirolaria
- 38 Iritzi artikuluen lehiaketako irabazleak
- 40 Hirukira Olgetan: Umeentzako denbora-pasak
- 42 Mundukatuak
- 43 Zozketak



«Afizio moduan hasi nintzen, baina hori baino gehiago bilakatu da»



«Leioako gazteentzat urteko egunik onena da»



Kodainak sortutako habitat aberatsa



«Gure osasuna, dantza talde moduan, ez dago arriskuan»

hiruka

HIRUKA kooperatiba sozietatea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Laura Fontalba, Izaro Garcia, Ander Zarraga, Xabier Mendia eta Hodei Torres.

Diseinua eta maketazioa: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Jon Artola eta Oihane Azula.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Nahikari Ayo, Josu Esnaola, Iñaki Larretxi Gallastegi, Luka Melendez Artega, Joanes Atxa eta Arantza Gutierrez.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Trikitiaren hauspoak

NAHIKARI AYO ACEBO Irakaslea



O hiturak galtzen ari dira, gazteek ez daukate gure kulturarekiko interesik. Kanpokoari garrantzia ematen diote. Zer nahi duzue esatea, ahoa itxi didate. Eta nola gainera...

Urrian, Andra Mari eta Aixerroto trikitilariak batu genituen. Gure asmoa Olentzerotan eta ikastetxeko jaietan ateratzea zen, inolako helburu potolorik gabe. Baina bai helburu zehatz batekin: talde giroa sortzea, trikiak kalera ateratzea eta gozatzea.

Gazteen konpromiso ezari buruz hitz egiten dugu. Ez dakizue zeinen gozagarria izan den hilabetearen behin batzea trikiak jotzeko, abesteko eta bizkotxoak askaltzeko. Gure erreperatorioa ez da oso zabala, baina apurka-apurka bagoaz osatzen.

Pianoa, gitarra, bateria, bibolina... bezalako instrumentuak ez baditugu aukeratzen, ez gaituzte serio hartzen. Gazteek hautua egin dute: trikitia. Gure kaleak doinuz bete nahi dituzte eta horretan dabilta. Izena ere aukeratu dute: hauspoak. Infernuko hauspoa urte luzez astindu dezatela!

Eskerrik asko Amaia, Alain, Ane, Izadi, Leize, Lur eta Terese. Gurasoei ere, zuek ere konpromiso itzela hartu duzuelako eta haiek parte hartzera bultzatu dituzuelako.

P.D.: Panderoa berreskuratuko dudala zin dagit!

50 urte eta gero

JOSU ESNAOLA Helduen euskara-irakaslea



14 urte nituela joan nintzenean estreinakoz euskararen aldeko ekitaldi handi eta jendetsu batera. Duela 50 urte izan zen hori. Artean, Gasteizko sarraskia buruetan bizi-bizirik geneukala, «24 orduak euskaraz» ekimenaren harira lau lagun Donostiako belodromoan egin zen kontzertura bertaratu ginen.

Estreinakoz joan ginen nagusirik gabe Donostiara. Estreinakoz pasa genuen gaua etxetik kanpo nagusirik gabe. Estreinakoz sentitu nuen halako zirrara gorputz osoan belodromoko ilunpean milaka pospolo piztu zirenean. Ez naiz ausartzen bidaia inizatikoa izan zenik esatera, baina gogoan iltzatuta lotu zitzaidan.

Urte horretan, irailean, ikasturte berriarekin batera ikastolatik institutura salto egin genuenean, 24 orduak euskaraz bizitzetik, erdaraz bizitzera pasatu ginen. Batean errealitatearekin topo egin genuen, euskarazko berba bakar bat bera ere ezagutzen ez zuten ikaskide eta irakasleekin.

Eta 50 urte geroago hemen gabilta ekainaren 13an Iruñeara joateko planak egiten, belodromoko ilunpean piztutako milaka pospolo haiek Pizkundearen sua pizteko balio izango dutelakoan, berandu baino lehen 24 orduak euskaraz bizi ahal izango ditugulakoan.

Puntua eta kontrapuntua **San Juan sua**

Gazteon txingarrak



*Belu ilundu eta
goizeko armozuez,
uda goldeka dator
beroaren moxuez.
Zerua zabaltzen da
izarren mezuez,
eta lurra argitu
San Juanaren suez:
Ta gazteok txingarrak
zelan dekozuez?*

**AITOR
ESTEBAN
ETXEBARRIA**
Getxo

*Udara hurbiltzen dabil,
urdinduz zerua,
hondartza bilakatu
gorputzen tenplua.
Beroak lurra apaindu,
ligeek burua;
begirada soil batek
sortzen du berua.
Txinparta bezain azkar
pizten zaigu sua.*

**HAIZENE
MERINO
PEREZ**
Sopela



Unai Barrenetxea Ardi-moztailea

«Afizio moduan hasi nintzen, baina hori baino gehiago bilakatu da»



Barrenetxea interesak erakarrita murgildu zen mundu honetan, eta irakaslea izateaz gain, Euskal Ardi Moztaileen Elkarteko idazkaria ere bada.

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA ▶

Urduliztarrak kontatu duenez, ardi-larrua mozteko zaletasuna pandemia garaian etorri zitzaion: «Irakurri nuen hemen ardi-moztaile gutxi zudela, Uruguaitik eta etortzen zirela, eta gutxika-gutxika lagun batek mundu honetan murgildu ninduen; curiositatea eta txikitatik nuen frustrazioaren bat edo izango zen, kar-kar». Lanbidez irakaslea bada ere, Euskal Ardi Moztaileen Elkarteko kidea da, eta kirol bilakatu den ogibide honen berri emateko erakustaldietan ere parte hartzen du. Azaldu duenez, ardi-moztaileen arteko txapelketak beti egon diren arren, «orain, indar berezia hartu du kirolaren ikuspegiak, eta, duela gutxi, euskal moztaille batzuk Zeelanda Berrian ere egon ziren lehiaketa batean».

Lehiaketetan abiadura eta mozketa kalitatea neurtzen direla kontatu du: «Azkarren ibiltzea garrantzitsua da, baina baita ardiaren azala zaintzea eta artilea ondo kentzea ere». Era berean, arrazaren arabera mozketa asko aldatzen dela ere gaineratu du, «batzuk lasaiagoak dira, beste batzuk biziagoak eta asko mugitzen dira...». Hala ere, azpimarratu du ardiek ez dutela sufritzen eta beraien biziraupenerako ezinbestekoa dela artilea mozte, ez zaielako berez erortzen eta luze uzteak osasun arazo larriak eragin diezazkioke.

Elkartearen lanari dagokionez, besteak beste, belau-naldi berriak erakartzea da beraien helburuetako bat. Horretarako, txapelketak, erakustaldiak eta hasiberrientzako ikastaroak ere egiten dituzte Arantzazun. «Bada oso indartsu datorren gazteren bat, Mikel Galbezek adibidez hiru hilabete eman ditu Zeelanda Berrian formatzen». Horrez gain, iazko irailean, Euskal Herriko eta Nazioarteko Ardi Moztaileen Txapelketaren lehen edizioa ere antolatu zuten, 24 euskal moztaille eta 42 nazioarteko moztaileren parte hartzeagaz. ◀

«Leioako gazteentzat urteko egunik onena da»

Barandiaran Institutuan mahaiak goiz agertzen direnean, zerbait pizten da Leioan. Kuadrillak batu, paellak sutan jarri eta giroak bere bidea egiten du. Baina Antzinako Eguna ez da berez sortzen: Mugiren lanak, ardurak eta maitasun hutsezko konpromisoak eusten diote egun horri.

TESTUA: IZARO GARCIA • ARGAZKIA: MUGI ▶

Mugiko kideek hainbat urtez eutsi diote Leioako Antzinako Egunari. Haiantzat, eguna ez da paellak, karaokea eta kuadrillen arteko jolasak batzen dituen egitarau hutsa: herriko gazteek beren tokia egiteko modua da. Baina festa bizirik mantentzeko, erreleboa eta inplikazioa ezinbestekoak dira.

Barandiaran Institutuan goizean hasten da dena. Oraindino eguna ez da guztiz piztu, baina lehen mahaiak agertu dira; kuadrilla batek paellarako tresnak ekarri ditu, beste batek lekua hartu du, eta ingurukoak jendea agurtzen hasi dira. Ez dago azalpen handirik eman beharrik: Antzinako Eguna iritsi da. Mugiko kideek argi dute egun horren indarra ez dagoela soilik egitarauan. «Egitaraua baino, giroa da egunaren berezitasunik nagusiena», azaldu du Alba Gonzalezek. Bertan dago egunaren muina: Antzinako Eguna berezi egiten duena gazteen artean sortzen den harremana da.

Alba Gonzalez, Andere Galbarriatu eta Ainhize Bastidak 2017an hartu zuten Mugiko lekukoa. Aurretik, antolaketan zenbiltzatenek urteak zeramatzen lanean, eta nekea pilatuta zuten. Hasieran, jende gehiago batu zen taldera, baina hiru lagun esku geratu da antolakuntzaren pisu nagusia.

Egitaraua

Ekainak 13, zapatua

- 10:30 Izen ematea.
- 11:00 Umeentzako tailerrak.
- 11:30 Gune-morea.
- 11:30 Koadilen arteko jolasak.
- 13:30 - 14:00 Paella entregatu.
- 15:00 Bazkari herrikoia.
- 15:45 Bingoa.
- 16:00 Sari-banaketa.
- 16:30 Karaokea.
- 19:00 Dena batuta.
- 20:30 Kalejira musikatua.
- 00:00 Nonbait erromeria
- 02:00 Kantzontzilo eta kulero lasterketa.

«Guk Udalarekin lan egiten dugu Antzinako Eguna eta Arimen Gaua aurrera eramateko, baina benetan ez dute haiek antolatzen»

Orditik, eguna moldatzen joan da, baina esentzia galdu gabe. Lehen, sukalkia egiten zen; gaur egun, paella da nagusi. Aldaketa ez zen berehala guztien gustukoa izan. «Hasieran batzuek sukalkia egiten jarraitu zuten; trantsizioa egitea kostatu zitzaien», azaldu du Galbarriatuk. Denboragaz, ordea, paellek bere lekua hartu, eta egun ia 50 biltzen dira. Ohiturak aldatu egiten dira, baina horrek ez du zertan esan gura nortasuna galtzen denik.

Jantziakaz ere antzeko zerbait gertatu da. Lehen, gehiago zaintzen zen egun horretako janzkera; orain, ohitura hori apaldu egin da. Mugik hainbat saiakera egin ditu berreskuratzeko: sariak, desfile moduko ideiak... Baina ez da erraza. «Saiatu gara urte askotan, baina jendeak ez du beti erantzuten», aitortu dute. Hala ere, Bastidak argi du: «Niretzat, esentzia ez galtzea da garrantzitsua».

GIROAK EGITEN DU EGUNA. Egitaraua aski ezaguna da: paellak, kuadrillen arteko jolasak, umeentzako tailerrak, karaokea, murala eta arrasti-gau parteko giroa. Antolatzailiek badakite zerk funtzionatzen duen, eta horri eusten diote. Baina argi daukate Antzinako Eguna ez dela jarduera-zerrenda bat; goizeko prestaketek, bazkalorduko mugimenduek eta arrastiko kantuek sortzen dute egunaren benetako giroa.

Bazatoz?

IKASTOLAK

betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84
LEIOA

BETIKO IKASTOLA

Barandiaranera mugitu zirenetik, espazioak ere lagundu du. Leku bilduagoa da, kuadrillen arteko harremana naturalagoa da, eta jendeak bereago sentitzen du eguna. Askorentzat jaietako beste egun bat baino gehiago da. «Leioako edozein gazterentzat urteko egunik bereziarena da, Leioako jaien gainetik», esan dute.

Kanpotik ikusita, badirudi dena berez gertatzen dela; hau da, kartela igotzen da, kuadrillek partekatzen dute, mahaia jartzen dira eta musika hasten da. Baina atzean lana dago. Eta, gaur-gaurkoz, lan horren zatirik handiena hiru lagun artean egiten da. «Gure lana muxutruk egiten dugu», dio Gonzalezek. Ez dago soldatarik, ez egitura handirik, ez dozena laguneko lantalderik. Kultura Sailagaz harremanetan jarri, hornitzaileak hitz egin, egitaraua lotu, baimenak bideratu, materiala mugitu eta egunean bertan dena ahalik eta ondoen ateratzea tokatzen zaie. Esperientziak lana erraztu die, baina horrek ez du esan gura ardurarik ez dagoenik.

Eta arazo txikiak beti sortzen dira: ordu-tegiak, bozgorailuak, espazioa edo azken orduko kexak. Karaokearena da adibiderik argiena; izan ere, arrakasta handia du, baina abesti guztiak ezin dira sartu. Norbaiti kanta saltatzen bazaio edo denborarik ez badago, haserreak sortzen dira. «Ez dugu hau egiten ondokoa izorratzeko», diote.

Hori dela eta, Mugik errespetua eta gutxieneko laguntza eskatzen ditu: «Eskatu dezakegun laguntzarik handiena jendeak *kable bat botatzea* eta gauzak erraz jartzea da, kexatzeaz harago».

MUGI, ERDIGUNEAN. Baina jendeak ba al daki benetan zer den Mugi? Antolatzaileen ustez, ez beti. Askok uste dute Antzinako Eguna Udalak antolatzen duela, baina ez da horrela.

«Mugi elkarte estali bat da, benetan elkarte izan gabe», azaldu du Galbarriatuk. Definizioak umore puntu bat badu, baina baita egia



Andere Galbarriatu, Ainhize Bastida eta Alba Gonzalez Mugiko arduradunak dira. © MUGI

Erreleboa, ezinbesteko Mugik atek zabalik ditu, baina Antzinako Egunak ez du berez iraungo. Egunak etorkizuna izango badu, gozatzeraz ezirik, ardura hartzeraz ere animatuko den jendea behar da.

ere. Mugi Leioako gazteen ahotsa izaten saiatzen da, «gazteok jaietatik harago ere gure espazioa izan dezagun».

Elkarte formalik ez izateak mugak jartzen dizkie. Jai-batzorde edo elkarte ofizial bihurtuko balira, gauza gehiago egiteko aukera izango lukete: Gazte Eguna, kantu-poteoak edo jaietan presentzia handiagoa, kasu. Baina horrek ardura handiagoa, paper gehiago eta, batez ere, jende gehiago eskatzen du. «Oso polita litzateke Mugi pertsona gehiagoren elkarrekin izatea, edo jai-batzorde bat», dio Bastidak. «Baina gaur egun hiru pertsona gara».

Barandiaranen mahaia goiz agertzen diren bitartean, badirudi oraindik badagoe-la zerbait bizirik: kuadrillak elkartzen dira, paellak sutan jartzen dira, norbaitek karaokea kanta bat eskatzen du, eta herri-giroak bere bidea egiten du. Baina etorkizuna ez dago bakarrik hiru lagun esku; eguna guztiontzat bada, ardura ere guztiona izan beharko da. ◀

2026

HELBURUA
B1, B2 eta C1 mailak lortzeko

MATRIKULA
Ekainaren 15etik 22ra - Aurrematricula: 18 euro

IKASTAROAK
Ekainaren 29tik uztailearen 9ra - 32 ordu
Astelehenetik ostegunera • Ordu-tegia: 09:00-13:15

2 ASTE!
Ostiralak libre

36,80 €

MARTXAN EUSKARAZ MASTITXUN
Udako ikastaro trinkoak

MASTITXU EUSKALTEGIA
Iparragirre etorbidea, 78
48940 - LEIOA
t 94 464 00 02

HABEK diruz lagundua
HADE

LEIOA
Herriko Ikastaroak
LEIOA UZTE

Irailaren 1etik aurrera
2026-2027 ikasturteko
matricula zabalik!!!

4, 5, 8 eta 10 orduko
ikastaroak!!!

A1, A2, C1
Dirulaguntza
bereziak!!!

Erandiogoikoko jai-batzordea Gorpuzi jaiak

«Jaiak aniztasuna besarkatzeko egokitu dira»

TESTUA: HIRUKA • ARGAZKIA: HIRUKA ▶

Beste urte batez, Gorpuzi jaiak gogoz eta berrikuntzaz beteta helduko dira ekainaren 4tik 7ra. Aurtengo festak nolakoak izango diren jakiteko elkarriketa egin diegu jaiak antolatzeaz ardura-tzen diren herritarrei; aurreratu digutenez, kultur eskaintza zabala izango dute, tradizioa eta aniztasuna batuz.

Aurten ere lau eguneko egitaraua dakar-zue. Berritasun edo sorpresaren bat egongo da? Egitarau nagusiak betikoari eutsiko dio, azken finean, argi geratu da urteen poderioz herritarrei formatua asegarri zaiela. Hala ere, aurten berrikuntza txiki batekin gatoz, kontzertu handia dakargu: Gozategi taldea egongo da zapatuan. Gainera, domekan, jaietako amaiera emateko umeentzako ikuskizun berezia ekarriko dugu: *Ministro Pisto* ikuskizuna Txintxeta, Txorroskilo eta Borragoma pailazoen eskutik!

Nolakoa da Erandiogoikoko jai-batzordea? Gaur-gaurkoz 14 neskek osatzen dugu, batzuk 10 bat urteko esperientziadunak dagoeneko eta beste batzuk orain dela gutxi taldean sartu berriak. Adin ezberdinetakoak izanagatik ere betidanik ezagutzen dugu elkar eta herriaren izaera ere ondotoxoz ezagutzen dugu guztiok; horrek asko errezten du lana eta koordinazioa.



Aurtengo berrikuntzak

«Kontzertu handia dakargu: Gozategi taldea egongo da zapatuan. Gainera, domekan, jaietako amaiera emateko umeentzako ikuskizun berezia ekarriko dugu: *Ministro Pisto* ikuskizuna Txintxeta, Txorroskilo eta Borragoma pailazoen eskutik!»

Ikuspuntu bikoitza:

«Herriak gozatu dezan lan egitea, eta, aldi berean, harekin batera gozatzea»

Nola deskribatuko zenituzkete Gorpuzi jaiak? Uste dugu Gorpuzi jaiak festa herrikoien kutsua mantentzen dutela: tradizioz herrian egin izan denari eusten diote, eta aniztasuna besarkatzeko egokitu dira.

Zer da jai-batzorde bezala gehien gorroto eta gehien gustatzen zaizuena? Gehien gustatzen zaiguna gure herriko jaietako gozatzeko ematen digun ikuspuntu bikoitza da: herriak gozatu dezan lan egitea eta, aldi berean, gure auzokideekin batera gozatzea. Gorrotagarriena, zalantzarik gabe, jaietako osteko kudeaketa da. Jaietako euforia guztiak edozein egin beharretan topera ibiltzeko erregai nahikoa ematen digu, baina jaiak bukatutakoan, egin beharreko kudeaketa guztiarekin arrastaka gabiltzala ematen du, puxika lehertuta bezala.

Baliabide gehiago izanez gero, zer gustatuko litzaizueke egitea jaietan? Gaur egungo merkatu kulturala ikusita, baliabide gehiagok kultur eskaintza zabalagoa emateko aukera emango liguke, zalantzarik gabe. Hala ere, ez dugu uste jaietako eskeletoa gehiegi aldatuko genukeenik.

Hurbilduko diren herritarrentzako mezuren bat? Ondo pasatzera eta jai herrikoien hauetaz gozatzera etor daitezela. Eta, batez ere, haien ekarpena egin dezatela gure jai gunea eremu seguru eta inolako erasorik gabekoa izan dadin. ◀

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

bai euskarari

Instagram and Facebook icons.

RPS 65/17

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA 944 307 696

Erandiogoikoa, Faeta, Martiartu eta Kukularra auzoetako jaiak:

Erandiogoikoa Gorpuzti jaiak

Ekainak 4, eguena

- 12:30** Aurreksua eta luntxa herriko nagusientzat.
- 19:00** Kuadrillen kalejira Goikolanda eskolako umeekin, Auzokoako musikari eta buruhandiek eta Apurtuko traktore eta jokalariek.
- 19:30** Txupinazoa.
- 19:45** Auzokoako buruhandiak trikitilari eta Talauren taldea herritik.
- 21:30** Herri afaria.
- 23:30** Luhartz erromeria.

Ekainak 5, barikua

- 17:00** Umeentzako aurpegi-margoketa.
- 17:45** Txikikroserako beroketa musikatua.
- 18:15** Txikikrosaren hasiera.
- 18:30** Trikipoteoa Talauren taldearekin.
- 20:00** Goi-Alde Dantza taldearen emanaldia.
- 21:00-23:00** Taloak.
- 22:00** Zitxada eta Erlantz.
- 23:30** Mrs. Klams.
- 01:15** Oreka erromeria.

Ekainak 6, zapatua

- 11:00-18:00** Puzgarriak.
- 11:00** Txistulariak herriko kaleetatik.
- 11:00** Artisau azoka.
- 15:00** Herri bazkaria.
- 17:30** Berakatz taldea.
- 21:00** Bokatak.
- 22:30** Gozategi.
- 00:45** Leihan erromeria.
- 03:15** Zatzaz.

Ekainak 7, domeka

- 12:00** Lagun Taldea Abesbatza.
- 13:00** Goi-Aldeko umeen dantzaldia.
- 14:00** Bitsa kanola umeentzat.
- 15:00** Tortilla-lehiaketa.

18:00 *Ministro Pisto* ikuskizuna umeentzat.

20:00 Jaien amaiera.

Faeta San Bernabe jaiak

Ekainak 11, eguena

- 12:30** Txupipurdi Bernitxuren eskutik.
- 13:00** Meza.
- 15:00** Herri-bazkaria, indabak.
- 17:30** Bingoa.
- 18:30** Charro Dominguez Mexikarrak.

Ekainak 12, barikua

- 19:30** Igel lasterketa.
- 20:00** Pintxo-potea.
- 22:30** Modus Operandi kontzertua.

Ekainak 13, zapatua

- 11:30** Kalejira txistulari eta dantzariekin.
- 12:00** Euskal dantzak.
- 13:30** Triki-Panderoa.
- 15:00** Herri bazkaria.
- 17:30** Bingo musikatua.
- 18:30** Karaoke ibiltaria.
- 22:00** Oinutsik erromeria.
- 01:30** DJ Vithy eta jaien amaiera.

Martiartu San Antonio jaiak

Ekainak 13, zapatua

- 12:00** Meza.
- 12:30** Auzoko nagusientzako luntxa.
- 18:00** Sokatira.
- 18:00-21:00** Puzgarriak.
- 21:00-22:00** Saiheski-jana.
- 22:00** Txapelabrava.
- 00:00** Txerri-ugerrak.
- 01:00** Bingo.
- 01:30** Dj goxua.
- Ostean:** Musika txosnan

Ekainak 14, domeka

- 17:00-20:00** Umeentzako tailerrak.
- 18:00** Idi probak.

Kukularra

Ekainak 19, barikua

- 19:00** Txupinazo.
- 19:30** Igel-toka txapelketa.
- 21:00** Sardinada.
- 22:30** Track 1 band kontzertua eta Dj Mario.

Ekainak 20, zapatua

- 11:00-13:30** Haurrentzako parkea: Haurrentzako puzgarriak eta uretako puzgarriak eta karts.
- 13:30** Paellen izen ematea.
- 15:00** Paellen aurkezpena.
- 15:00-19:00** Haurrentzako parkea: Haurrentzako puzgarriak eta uretako puzgarriak.
- 19:00** Apar jaia eta ur-gerra.
- 22:30** 3en1 fusi3n kontzertua eta Txinparta erromeria.





GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketua gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



English SUMMER Play School

July 9.00 - 13.30h

2 to 12 YEAR-OLDS

outdoor activities fun & games

- Janteki until 15.00h. (optional)
- 2nd. brother/sister - 50% discount.
- 3rd. brother/sister - FREE

INFORMATION & INSCRIPTIONS

☎ 946 763 012

☎ 663 628 828

📧 info@hamiltonidiomas.com

hamiltonidiomas.com sipiri kalea, 11 | Sopela

«Jaiak, azkenean, gozatze

TESTUA: LAURA FONTALBA COLOMO ▶

Ekainaren 19tik 24ra, San Juan jaiak ospatuko dituzte Barrikan. Jai-batzordeko kideek azaldu digutenez, aurten, karteldegi oso ona prestatu dute, barrikoztarrek berriz elkartzeko eta gozatzeko jardueraz beteta dagoen egitaraua, hain zuzen ere.

Badago egitarauan gehiago nabarmenduko zenuketen zerbait? Barrikan, normalean, familia giroko ekintzak sustatzen ditugu, denok gozatzeko modukoak, baina egia da aurten oso karteldegi ona daukagula; gauean, jende gehiago animatzea gustatuko litzaziguke musikaz gozatzeko. Baina badakigu zaila dela bertaratzea, 22:00etatik aurrera garraio publikorik ez dagoelako; hala ere, Uribe Kostako jendea Barrikara etortzera animatzen dugu: ostiralean, Gazte Gaua ospatzeko, eta larunbatean erromeria eta Rise To Fall taldearen kontzertuaz gozatzeko.

Orain arte, zein izan da jai-batzordean bizi duzuen momenturik kaotikoena? Galdera zaila da hori, 16 urte inguru pasa dira jai-batzordea sortu zenetik eta hainbat buruhauste izan ditugu. Arazo gehienak argindarraren inguruan izan dira, baina euriak ere momentu kaotiko asko eragin ditu. Normalean, urtero gauza berriren bat gertatzen zaigu; ia ohituta gaude denetatik ateratzeko. Aurretiko prestaketetan ere une biziak egoten dira, gauza asko koordinatu behar baitira dena ondo sartzeko eta koadratzeko. Jai-batzordean ez gara asko, beraz, eskerrak beti dagoen jendea laguntzeko prest.



Ekainaren 23an, pasa den urtean egindako Tai Chi erakustaldia errepikatuko dute.

«Badakigu zaila dela bertaratzea, 22:00etatik aurrera garraio publikorik ez dagoelako, baina, hala ere, Uribe Kostako jendea Barrikara etortzera animatzen dugu: ostiralean, Gazte Gaua, eta, larunbatean, Erromeria eta Rise To Fall taldearen kontzertuaz gozatzeko»

Zein da antolaketa-lan handiagoa ematen duen ekintza? Ekintza desberdinak aukeratu ditzakegu, bakoitzak bere planifikazioa baitu. Baina gaueko kontzertuek, adibidez, egun osoko plangintzan eragina dute. Soinu-frogak egin behar dira eta Barrikako udaletxeko plazan ekintza guztiak egiten direnez, denbora oso kontrolatuta izan behar dugu; muntaia, soinu frogak eta dauden ekitaldiak ez gainjartzeko. San Juan gauak ere antolaketa-lan handia dakar, barrikoztarrentzako oso garrantzitsua den eguna baita. Jende asko hurbiltzen da Barrikara ekitaldia eta su-pizketa ikustera. San Juan gauaz udaletxeko langileak arduratzen dira, baina beraiekin koordinatzea garrantzitsua da, dena ondo atera dadin.

Zerk motibatzen zaituzte hainbeste ordu sartzera? Jai-batzordea zazpi pertsonen osatzen dute. Batzuetan zalantzak sortzen zaizkigu



MUSEO PLASENTIA DE BUTRÓN



PLENTZIA
Goienkale 27

contacto@museoplentzia.org
946 773 725



**ENTRADA
GRATUITA**



**SARRERA
DOHAIN**

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

ko dira»

jai-batzordearen jarraipenarekin, ekainaren 24an agortuta bukatzen baitugu. Normalean, txosna desmuntatu eta aseta amaitzen dugu. Baina jaien balantzea egiten dugunean, neke ahaztu egiten zaigu pixka bat. Jaiak dira urtero hitzordura joaten diren barrikoztarren belaunaldi desberdinen bilgunea. Askok urtean behin bakarrik ikusten dugu elkar; beraz, esan dezakegu jendea berriz elkartzeak eta gozatzeko ikusteak, eta urtez-urte batzordeak ere hor jarraitzen duela jakiteak mugiarazten gaituela.

Jaiak herria elkartzen dute beraz? Bai, noski. Normalean, Barriko jaiak belaunaldi desberdinen bilgunea izaten dira. Ostiralean, normalean, sagardo- eta sardina-jana egunean, barrikoztar asko elkartzen gara urtez urte jaiari hasiera emateko, baina baita gure artean elkar ikusteko ere. Batzuetan, urte askotan ikusi ez duzun jendearekin egiten duzu topo, eta, egia esan, ilusioa egiten du.

Zure ustez jendeak nahiko baloratzen du egiten duzuen lana? Beno, zaila da mundu guztiari atsegin ematea eta egiten dugun lana baloratzea. Normalean negatiboa dena esateko joera izaten dugu, eta ez positiboa ikusten duguna, ezta jarduera bakoitzaren atzean dagoen lana ere. Eta ez bakarrik jaien jardueren antolaketari dagokionez, baizik eta jaien aurreko lau hilabeteetan. Zaila da lana, familia eta jaien prestaketa uztertzea; baina, tira, ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara. Espero dugu jai hauek, aurrekoak bezala, oso parte hartzaileak izatea, gozatzea eta barrikoztarrentzat gustukoak izatea. Jaiak, azkenean, gozatzeko dira. ◀

Ekainaren 19tik 24ra



Ekainak 19, barikua

- 18:00 Jaiari hasiera eta txupinazoa.
- 18:00 Dantza plazan Patxi Perez Konpainiagaz.
- 20:00 Sardina-jana eta sagardo festa.
- 20:00 Gazte gaueko kontzertuak: Ostikada, Anithree, Blakkat Mentxu, Norman Bates eta Staff.

Ekainak 20, zapatua

- 10:00-14:00 Sukalki txapelketa.
- 12:00 Haurrentzako puzgarriak.
- 12:00 Zeramika-tailerra.
- 16:30 Mus-txapelketa Nagusien etxean.
- 17:30 Sukalki txapelketako sari-banaketa.
- 18:00 Magia Ikuskizuna: *Andoni en zapatillas*.
- 19:00 Ikuskizun familiarra: *Barre Bidean*.
- 21:00 Nonbait erromeria.
- 23:30 Rise to fall kontzertua.

Ekainak 21, domeka

- 10:00 Nekazaritza eta Artisautza Azoka.

- 12:00 Haurrentzako puzgarriak, buruhandiak, igel-toka txapelketa eta euskal dantzak.
- 12:30 Trikopoteoa Zuzterrak taldeagaz.
- 13:00 El Gran Ritxarson vermouthe akustikoa.
- 18:00 Ikuskizun familiarra, *Kay Robot* Antzezlanak.
- 19:00 Tucson Band kontzertua.
- 19:00 Saiheski-jana herrikoia.

Ekainak 23, martitzena

- 17:30 Belaunaldien arteko dantzak.
- 19:00 Diskofesta Arima.
- 21:00 Txokolate jana herrikoia.
- 21:30 Tai Chi erakustaldia.
- 22:00 *Kolpez San Juan gaur* ikuskizuna, Takunerre elkarte eta Meñakoz dantza-taldearen eskutik.

Ekainak 24, eguaztena

- 11:00 Meza nagusia.
- 14:30 Bazkari herrikoia.



Azkena eta etxera 2025eko kuadrilla irabazlea

«Jaiak ez dira egun batzuetako kontua: urte osoko lanaren emaitza dira»

ANDER ZARRAGA ▶

Azkena eta etxera kuadrillakoez irabazi zuten iaizko Sopelako kuadrillen txapelketa. Prest izango al dute aurtengo jaitsierarako gaia?

Zeintzuk dira gehien gustatzen zizkizuen probak? Gehien gustuko dugun proba jaitsiera dela esango genuke. Denbora asko ematen dugu ideia garatzen eta lanketaren prozesua polita izaten da. Ekainaren hasieran hasi ohi gara prestatzen eta jaitsiera eguna iristen denean, hilabete oso bateko lana ikusten da. Gainera, adin desberdinetako kuadrilla askok parte hartzen dute ekintza honetan, beraz, herri-giroa asko sustatzen duela esan genezake. Sopeloztar oro parte hartzaile eta protagonista bihurtzen da egun honetan, horregatik da hain berezia egun horretako giroa.

Eta gutxien? Kozinatzea eskatzen dutenak. Egia da kuadrillan partaide asko garelako, baina oraindik ez dugu aurkitu nork duen sukaldari sena. Marmitako frogan eskuratu genuen puntuazioa jakingo bazenute... A ze lotsa!

Zeintzuk dira hobeak, sanpedroak edo Larrabasterrako jaiak? Joe, galdera zaila da hori. Baina bat hautatu beharko bagenu Sopelakoak izango lirakeke. Nahiz eta Larrabasterrako jaiak baduten zerbait berezia, orokorrean kuadrillek ekintza gehiago izaten ditugu Sopelakoetan; Larrabasterrakoetan lasaia gibelten gara. Hala ere, belaunaldi berriak indartsu datoz eta Larrabasterran ere



Azkena eta Etxera kuadrillako kideek irabazi zuten iaizko lehiaketa.

Sopelako Kuadrillak

«Sopelan horrelako eragile bat izatea eskertzekoa eta pozik egotekoa da»



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.

ekintza berriak sortu dira: playbacka, pintxo lehiaketa...

Zergatik dira Sopelako jaiak hain bereziak? Urte osoan zehar egiten den herrigintzaren ospakizuna direlako, batez ere. Sopelan urtean zehar sortzen da giroa, eta gazteen arteko harremanak indartzen eta loratzen joaten dira. Horren ondorioz, giro euskaldun eta komunitario bat eraikitzen da herrian; azken finean, jaiak benetan gureak sentitzen ditugu.

Jaiak ez dira egun batzuetako kontu hutsa: urte osoan egindako lanketaren emaitza dira, herritik sortuak eta herriarentzat antolatutak. Horrek harrotasun handia eragiten dio sope-lozotar askori. 3, 4 edo 5 eguneko jaiak izan arren (eta noizbait 10 eguneko sanpedroak ere izan ditugu), egun horiek bereziak eta bi-ziak izaten dira herriko adin eta gustu guztietako jendearentzat, denek aurkitzen baitute zer egin eta zer ospatu. ◀

IKASTOLAK

anderdeuna.eus

Gozatu oporretaz!

94 676 02 66 | info@anderdeuna.eus

ander deuna
IKASTOLA

Sopelako 8. Irrintzi Txapelketa

Tradizio zaharrari bizi berria emateko nahia

Hasieran, intuizio hutsa zirudiena gaur egun Sopelako jaietan guztiz errotatuta dagoen ekimena bihurtu da: Irrintzi Txapelketa.

Ekimenaren hazia Sopelako Pandero Joleen taldean erein zen. Taldeko kide batek irrintzia erreperitorioan sartzeko proposamena egin zuen, eta, handik gutxira, Nafarroako Errokariko Bidankoze herritik Euskararen Egunean parte hartzeko gonbita jaso zutela azaldu dute jai-batzordeko kideek. Esperientzia hark arrasto handia utzi zien: «Egun horretan, araneke beste herrietako kideekin irrintziak bota genituen eta horrek markatu egin gintuen, baita motibatu ere». Hain zuzen ere, orduan otu zitzairen irrintziaren inguruko lan-talde bat eta, geroago, txapelketa antolatzeko ideia.

Bidean, irrintziaren inguruko ikerketa ere egin du, eta Pandero Joleetako kide baten dokumentazioa baliatuta, ikasi dute irrintzia oihi luze, zorrotz eta hats bakarrekoa dela. Antzina, haranen eta mendien artean komunikatzeko erabiltzen zena; gaur egun, berriz, ospakizun eta erromerietako pozaren sinbolo da.

Tradizioak berreskuratzea da, hain zuzen ere, taldearen helburu nagusietako bat; horregatik, irrintzi-ikastaroa ere sortu zuten, ohitura berreskuratu



SOPELAKO JAI-BATZORDEA

eta jendea jarduera horretan parte hartzera animatzeko. Gainera, jaietan antolatzen duten txapelketak gero eta harrera hobe duela ere gaineratu dute. «Lehenengo ediziotik plazako giroa ona izan da, eta edizio bakoitzean hobeak eta ideia berriak txertatzen joan gara». Aurten ere bide beretik jarraitzeko asmoa dute.

Lehiaketari dagokionez, irrintziak arau argiak ditu: ezinbestekoa da hats bakarrean eta etenik gabe egitea; bestela, ez da baliozko zat joko. Epaimahai-kideek hiru alderdi hartzen dituzte kontuan: indarra, iraupena eta amaiera.

Baina txapelketaren helburua puntuazioetatik harago doala azpimarratu dute. Antolatzaileen esanetan, irrintzia herritarren bizitzan txertatu nahi dute, eta oihi kolektibo horren bidez parte-hartzea, komunitatea eta tradizioarekiko lotu. ◀

Jaietako kontzertuak:

San Pedro jaiak

Ekainak 25, eguena

- Trikidantz, Txosnagunean.
- Mescalina, Udaletxeko plazan.

Ekainak 26, barikua

- Sua eta Hija del Nopal, Txosnagunean.
- Albina & Divina eta Cherry & The Ladies, Udaletxeko plazan.

Ekainak 27, zapatua

- Mambo Express. Txosnagunean.
- Janus Lester, Udaletxeko plazan.

Ekainak 28, domeka

- La Txama, Txosnagunean.
- Zinema Paradise, Udaletxeko plazan.

Ekainak 29, astelehena

- Nonbait, Txosnagunean.
- Xabi Aburruzaga + Meñakoz Dantza Taldea, Udaletxeko plazan.

Larrabasterrako jaiak

Uztailak 15, eguaztana

- Etzakit, Urgitxieta plazan.

Uztailak 16, eguena

- Rise To Fall eta The Clams, Urgitxieta plazan.

Uztailak 17, barikua

- Manny Calavera, Urgitxieta plazan.

Uztailak 18, zapatua

- Xiberoots, Urgitxieta plazan.

Uztailak 19, domeka

- Folklore Bizian eta Makilhotsak, Urgitxieta plazan.

ARIMA DANTZA ESKOLA

ZATOZ GUREKIN DANTZA EGITERA!

617 58 14 71

MATRIKULAK ZABALIK
ekainaren 15etik aurrera

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaia eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Berango Lantzarte Bizirik
Lantzarteko isunek zauria berriro ireki dute Berangon



Plataformak kontzentrazioa deitu du. LB

Lantzarte Bizirik elkarteak kontzentrazioa deitu du ekainaren 4rako, 19:00etan, Berangoko frontoian, Lantzarteko aparkalekuaren obren aurka mobilizatutako auzokideei ezarritako isunak salatzeke. Plataformak jakinarazi duenez, zehapenak 10.000 eurora iristen dira guztira. Isunak Lantzarteko aparkalekuaren obren testuinguruan gertatutako protestatik heldu dira. Elkartearen arabera, egun hartan makineria zuhaitzak erauzten hasi zirenean, hainbat auzokide obraremurura hurbildu ziren haserre eta ezinegona adieraztera. Lantzarte Bizirik azpimarratu du ez zela aurrez prestatutako ekintza izan, unean bertan sortutako erreakzio kolektibo «espontanea eta baketsua» baizik.

Guztira, adin askotako 20 bat herritarrek jaso dituzte isunak; gazteenek 20 urte pasatxo dituzte, eta zaharrenak ia 80. Bereziki mingarritzat jo dute urteetan inguruko zuhaitzak eta berdegunea zaindu dituzten auzokide nagusien egoera.

Administrazioak egotzitakoaren arabera, protestak obrak geldiarazi zituen, eta horregatik ezarri dizkiete zehapenak. Plataformak, ordea, salatu du gertatutakoa testuinguru emozional batean ulertu behar dela: zuhaitzen mozketak ezinegona eragin zuen auzoan, eta umeen erreakzioak ere egoera are gehiago gogortu zuela azaldu dute.

Lantzarte Bizirik uste du isunek azken hilabeteetan baretuta zegoen gatazka berpiztu dutela. Horregatik, herritarrak ekainaren 4ko mobilizazioan parte hartzera deitu dituzte. ◀

Getxo Bizkaibus linea

Subflubiala Ez taldeak Bizkaibusen aldaketak salatu ditu

Kolektiboaren arabera, proposatutako aldaketek Muskiz-Areeta linea kentzea ekarriko lukete, eta haren ordez A3338 Muskiz-Ansio linea ezarriko litzateke.

Subflubiala Ez plataformak alegazioak aurkeztu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibus sarea berregituratzeko aurkeztu duen planaren aurka. Ohartarazi du erabaki horrek Meatzaldea eta Eskuinaldea garraio publiko bidez lotzen dituen linea bakarra desagerraraziko lukeela. Horren ondorioz, Muskiz, Trapagaran, Abanto eta Ortuellako bizilagunek ez lukete Leioara edo Getxora zuzenean joateko aukerarik izango autobusez, eta autobus aldaketa egin beharko lukete. Era berean, Leioaren eta Barakaldoren arteko lotura ere okertuko litzatekeela salatu dute.

Subflubiala Ezek uste du neurriak Arrontegiko zubiko trafik-arazoak areagotu ditzakeela, orain arte autobusa erabiltzen zuten herritar ba-

tzuk autoa hartzera bultzatuko litzatekeelako, garraio publikoa eta mugikortasun jasangarria indartzeko beharraz bat ez datorrena.

Kolektiboak kritikatu du Aldundiak, aldi berean, Leioa eta Trapagaran arteko azpiegitura berrirako 500 milioi euro baino gehiago bideratu gura izatea eta bi udalerrri horien arteko garraio publiko bidezko lotura zuzena kentzea. Haien ustez, horrek erakusten du erakundeak «auto pribatuaren aldeko apustua» egiten duela garraio publikoaren kaltetan.

Horregatik, plataformak Foru Aldundiari eskatu dio itsasadarraren azpiko tunelaren proiektua bertan behera uzteko eta baliabide horiek garraio publikora bideratzeko. Alegazioez gain, mobilizazioak egitea ere aztertzen ari direla jakinarazi dute. ◀



Manifestazioa Berangoko auzipetuen alde

Maiatzaren 30ean, hiru mila pertsona inguruk eman zieten babesa Ibai Aginaga preso ohiari ongietorria egiteagatik auzipetutako 16 herritarrei. Orotara 36 urteko kartzela eskaerak ditugu, 171 urteko inhabilitazioak, eta 76.000 eurotako isunak eskatzen dizkiete, «adierazpen askatasunaren eta militantzia politikoaren aurkako prozesua» bezala deskribatu duten kasu horretan.

Sopela Euskararen erabilera

«Herritar batek Udalera deitzean, lehen hitza euskaraz egingo zaio»

Sopelako Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eguneratu du, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideakaz herritarrei zerbitzua hizkuntza ofizial bietan eskaintzea bermatzeko asmoagaz.

Udal-arduradunek adierazi duten moduan, EAEko herritarrek erakundeetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea izan beharko lukete, eta plan honen bidez, eskubide hori beteko dute.

Honi esker, Udalak eskaintzen dituen arlo guztietan euskara erabiliko da: telefonoz zein telematikoki jaso daitekeen arretan, Udaltik bidalitako jakinarazpenetan, ziurtagirietan eta gisa horretako dokumentuetan, baita webgunearen bitartez egin ahal diren tramite

EAEko herritarrek erakundeetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea izan beharko lukete, eta plan honen bidez, eskubide hori beteko dute.

guztietan ere. Gainera, iragarri dutenez, erakundeetan dauden errotulu guztiak ere elebitan jarriko dituzte.

Udaltik nabarmendu dute erabakiak elebitasuna bermatuko duela: «Herritar batek Sopelako Udalera deitzen duenean, lehen hitza euskaraz egingo zaio, eta herritarrek erabakiko du gurekin euskaraz jarraitu nahi duen edo gaztelaniaz hitz egin nahi duen».

Ildo horretan, azaldu dute langileen hizkuntza ohitura formalak zein informalak euskalduntzeko asmoagaz bi ikastaro eskainiko dizkietela.

Azkenik, Udalak ohartarazi du planak barne- zein kanpo-harremanetan euskararen erabilera sustatzea duela helburu, euskal hitzunen egunerokotasuna erraztuz. ◀

Publierreportajea **Artolozaga Anaiak**

ARTOLOZAGA ANAIK TAILERRAK - ITSASALDE AUTOAK

Zure konfiantzazko tailerra



Autoen konponketako fase eta atal guztiak hartzen dituzten profesional talde kualifikatua dute Artolozaga anaiak. Mekanika osoa, elektronika, diesel zein gasolina ibilgailuak, gurpilak, txapa eta pintura jorratzen dituzte Sopelako Gatzarriñe kalean duten tailerrean. Horietan emaitzarik onena izateko goi mailako teknologia darabilte, eta Bosch Car Service zigiluaren bermea daukate, besteak beste, ordezko pieza originalak erabiltzen dituztela ziur egon zaitezke.

Etiket hurbil eta 40 urteko ezagutza metatuagaz, Artolozaga anaiak da ibilgailua prest jartzeko eta edozein konponketa egiteko tailerra, zalantza barik.

Ez izan zalantzarik, autoak arazoak ematen badizkizu, motorra hondatu bazaizu, IAT gainditzeko arazoak badituzu, doikuntzak egin behar badizkiozu edo etiket hurbil konfiantzazko tailer baten bila ari bazara, joan Artolozaga anaiak tailerrera eta ez zara damutuko.



Multimarka. Artolozaga anaiak marka eta mota guztietako ibilgailuak artatzen dituzte euren tailerrean.



Diagnostikotik hasita, konponketa konplexuenetara egiten dute, baita mantentze-lanak ere. Jarduera integrala.



Ibilgailu elektrikoak eta hibridoak ere artatzen dituzte. Teknologia berrienetara moldatutako mekanikarekin.

Urduliz Eskubaloi taldea maila nazionalera igo da

Berango Urduliz Eskubaloiak igoera historikoa lortu du

Uribe Kostako taldea Zilarrezko Kategoriarara itzuli da igoerako fasean jaun eta jabe izan ostean. Orain, taldea babes bila ari da maila nazionalari eutsi ahal izateko.

Euskadiko txapelketan txapeldunorde geratu ostean, Berango Urduliz Eskubaloi taldeko neskek igoera fasea jokatzeko aukera izan zuten aste-akabuan, maiatzaren 22tik 24ra, Maliañon, Kantabrian. Igoerari atea zabaldu zion lehen neurketa barikuan jokatu zuten, Balonmano Villafrancaren aurka, eta 16-28ko emaitza argiagaz irabazi zuten. Zapatuan, berriz, etxe-koen aurka jokatu zuten neurketa gakoa: El Pendo Camargo menderatu zuten 20-27, presio handiko testuinguruan ere sendotasuna erakutsita. Domekan heldu zen amaiera borobila, Lanzarote San Jose Obreroren kontra; erritmo handiko norgehiagoka bizia izan zen, eta 29-34ko markagailuagaz itxi zuten fase «perfektua». Emaitza horregaz taldeak bigarenez lortu du maila nazionalera igoetzea.

Aste-akabuan, taldeak harmailetan ere «gotorleku» bat izan zuen hiru egunetan zehar Uribe Kostatik joandako zaletu ugari pabiloiaren hiru laurdenak betetzera ere iritsi baitziren. Gainera, garaipena borobiltzeko, banakako sariek ere taldearen maila islatu zuten: Ixone Aparicio aukeratu zuten txapelketako atezain onena, eta Leize Zulu-



Taldekieak Maliañon eskuratutako garaipen absolutua ospatzen. BUE

Taldearen filosofia

«Garaipenak lortzeko modurik errazena ez bada ere, gure filosofia jarraitzen saiatzen gara, eta gure jokalariek kimuetatik seniorretara egiten dute ibilbidea; hala, txapelketa jokatu duten 19 jokalarietatik 18 harrobikoak dira»

gak jaso zuen jokalaria onenaren aitortza.

Diego Izquierdo entrenatzaileak azpimarratu du igoera ez dela ustekabeko arrakasta, 50 urteko harrobiko lanaren eta eskualdeko kirolaren alde egindako apustuaren emaitza baizik. Hala ere, entrenatzaileak ohartarazi du mailaz igotzeak erronka ekonomiko eta logistiko handiagoa dakarrela taldearentzat, eta babes ematen dieten enpresa-sareari laguntza eskatu dio, proiektua maila nazionalen sendotu eta emakumezkoen eskubaloi Uribe Kostan ezartzen jarraitu dadin. «Orain, gure helburua mailari eustea eta ahalik eta gehien ikastea da, oso jokalaria gazteak baititugu: nagusienak 25 urte ditu. Hala ere, ilusioagatik bada, hor ez gaitu inork irabazten, hori argi dugu». ◀



**ETORKIZUNEAN
LANEAN**

Ibilbidea zure esku

“EHUn Fisika ikasi nuen.
Gaur NASA-rekin lan egiten dut”

Eneko Axpe,
Fisikaria

www.ehu.eus/ikasi

Erudio HAPOn berrikuspena

Erudioko PPK HAPOn berehala onartzeko eskatu dio Udalarari

Erudioko PPK udalerriko «hirigintza-blokeoa» salatu du, eta udal-gobernuari eskatu dio Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) «berekala» onar dezala.

Alderdiak azaldu duenez, egoera hori berriro agerian geratu da Altzaga-Erudiogoiako errepideko 45. zenbakiko ostalaritza-jarduerari eta hirigintza-hitzarmenari lotutako espedienteagaz. PPren esanetan, gaia maiatzaren 21eko udal-batzordean landu zen, eta gobernu-taldeak ekaineko osoko bilkurara eramateko asmoa du, nahiz eta «bereziki eztabaidatsua» izan eta hirigintza zein auzi judizialen ibilbide luzea izan.

Iker Iribarren zinegotziak adierazi du kasu horrek Erandion azken urteetan egon den «planifikazio eta hirigintza-kontrol falta» islatzen duela. Era berean, jarduera horrek urteak daramatzala salatu du administrazio-gatazkak, ustezko hantze irregularrak, auziak eta arazoak pilatzen, udalerriko jarduerak behar bezala ordenatzeko eta kontrolatzeko hirigintza-esparru moderno baten faltagatik.

PPk gogorarazi du, halaber, Erandiok oraindino ere arau subsidiario «zaharkitu eta guztiz gain-

dituekin» jarraitzen duela, eta horiek ez direla gai udalerraren gaur egungo beharrei erantzuteko, ez etxebizitzari dagokionez, ezta ekonomia- eta hiri-garapenari dagokionez ere.

Horregatik, alderdiak Gobernu-taldearen jarrera kritikatu du. Iribarrenen esanetan, urteak daramatzate aurrerapenak eta promesak iragartzen, baina horiek ez dira gauzatzen. «Erandiotarrak eta enpresak dira hirigintza blokeatu eta norabiderik gabeko horren ondorioak ordaintzen dituztenak», adierazi du.

PLANIFIKAZIO FALTA. PPren ustez, Udalak «berandu eta arazozen atzetik» jarduten du, eta etorkizuna planifikatu beharrean, gatazkak «hitzarmen puntualen bidez» konpontzera mugatzen da. Hori dela eta, behin betiko HAPOn aurkezteko eskatu dio Udal Gobernuari, udalerraren garapen ordenatua, segurtasun juridikoa eta etorkizuna bermatzeko «funtsezko tresna» dela iritzita. ◀

Erudio Airearen kalitatea

EH Bilduk gardentasuna eta bitartekaritza eskatu ditu Erudioko airearen kalitatearen inguruko eztabaidan

Eusko Jaurlaritzaren txostenaren ondorioen arabera, Erudioko airearen kalitatearen zaintza «zabala» da parametroei, maiztasunari eta banaketa espazialari dagokienez, eta Euskadiko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak indarrean dagoen araudia betetzen du.

EH Bilduk, ordea, azpimarratu du eztabaidaren muina ez dela soilik lege-mugak betetzen diren ala ez, herritarrek benetan zer arnasten duten jakitea, egungo neurketek espazio hori behar bezala islatzen duten argitzea eta urteetan kezka agertu duten auzotarren konfiantza berreskuratzea baizik.

Koalizioak gogorarazi du CSICek bitartekaritza-bide bat proposatu duela, eta proposamen hori Eusko Jaurlaritzari, Erudioko Udalarari eta Arartekoari helarazi zaiela. EH Bilduren arabera, Arartekoak begi onez ikusi du aukera hori; Jaurlaritzak eta Udalak, ordea, baztertu egin dute, arazorik dagoenik ukatzen dutelako.

ERANDIO HOBE BATEN ALDE. EH Bilduk gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta osasun publikorako bermeak eskatu ditu. Era berean, herritarrak animatu ditu Auzokoa Auzo elkarteak eta Herri Bideak Kate Barik elkarteak antolatutako hitzaldian parte hartzera; bertan, CSICeko zientzialariek beren azterketa azalduko baitute. «Zer arnasten dugun jakin nahi dugu», adierazi du EH Bilduk. ◀

ERDI GUNEAN ZU
Eskatu bisita pertsonalizatua

SAN NIKOLAS
IKASTOLA

Ezagutu gure eraikin berria
Etarbizunerantz!

Plentzia Itsasertz Mugartea**Babesa kendu diote frontoiari, baina ez futbol-zelaiari**

Espainiako Gobernuak Trantsizio Ekologikorako Ministerioak ontzat jodu Jai-Alai frontoiaren zati txiki baten itsas-lehorreko jabari publikoko izaera kentzeko bidea abiatzea. Ebazpenean jasotzen denez, 244,7 metro koadroko eremuak bere jatorrizko ezaugarri naturalak galdu ditu eta gaur egun eraikinaren parte da; horrenbestez, administrazioak ondorioztatu du pilotalekuaren tarte hori jada ez dela beharrezkoa kostaldearen babeserako edo erabilerarako.

Aitzitik, Errotabarriko futbol-zelaiaren kasuan, Ministerioaren ustez 11.914 metro koadroko eremua itsasadarraren ondoan dago, eta, berreskuratzeko moduko ezaugarri naturalak ditu. Halaber, administrazioak adierazi du ez duela onartzen futbol-zelaiaren desafekzioa Txipioko lurren lagapenagaz baldintzatzea, baina prest azaldu da jabari publikora gehitzeko, Udalak erosiko balitu. ◀

Uribe Kosta Institutuko langileen protesta**Irakasleen aurkako erasoak salatu dituzte**

Plentziako Uribe Kosta BHI-ko irakasleek «mehatxuak, erasoak zein umiliazioak» salatzen elkarretaratze bi egin zituzten maiatzaren 26a. Deialdietan 60 eta 40 bat irakasle eta zentroko langile elkartu ziren bizi duten «babesgabetasun egoera» salatzen. Irakurritako testuan adierazi zuten, Plentzian eta beste hainbat zentrotan irakasleen aurkako erasoak areagotzen ari diren bitartean, Hezkuntza Sailak «beste aldera begiratu du edota irakasleoi espedienteak irekitzen dizkigu». Hori dela eta, «egoera zaurgarrian» daudela diote, «nerabeak hezteko gogoz» lan egiten duten arren, «oztopoak gero eta handiagoak» direlako.

Mezuaren bidez, hezkuntza-komunitateak azpimarratu du ezin-



bestekoa dela irakasleen segurtasuna eta babesa bermatzea eguneroko jardunean. Azpimarratu dutenez mobilizazioaren helburua gertatzen ari denaren berri ematea izan da, baita lan-baldintzak zein babes-neurriak hobetzeko beharra agerian uztea ere.

Prebentzio-plangintzak, mediku-azterketak, azterketa psikosozialak, lanpostuen eta zentroek azterketa eta prebentzio figurei behar besteko baliabideak exijitu dituzte. ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

EUSKALTEGI MUNICIPAL DE GETXO

UDAKO IKASTARO TRINKOAK:
UZTAILEAN ETA IRAILEAN
CURSOS INTENSIVOS DE VERANO:
EN JULIO Y SEPTIEMBRE

UZTAILEAN

Maila guztiak **A1-A2-B1-B2-C1**

Uztailaren 1etik uztailaren 22ra
(80 eskola ordu/egunero 5 ordu)

PREZIOA: 88 euro
MATRIKULA ZABALIK:
ekainaren 1etik 22ra arte

IRAILEAN

B1-B2-C1 egiaztatzeko
azterketak prestatzeko.

Irailaren 2tik 23ra
(48 eskola ordu/egunero 3 ordu)
(64 eskola ordu/egunero 4 ordu)

PREZIOA: 52,8 euro/70,4 euro
MATRIKULA ZABALIK:
ekainaren 1etik uztailaren 10era arte

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)
Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu



Getxo
bizi ezazu



Getxo
LIBURUTEGIAK
bizi ezazu

LEIOA San Juan Jaiak 2026

Ekainak
19-24
Junio




Leioako kaleak antzoki handi bilakatu ditu beste behin ere Umore Azokak. Herriaren nortasunaren eta kultur agendaren ezinbesteko plater honek ez du hutsik egin, eta aurten ere adin guztietako ikusleak liluratu, barrez leherrarazi, edo, gutxienez, entretenitu ditu. Urtero legez, antzerkia, zirkua eta dantza izan dira kaleak bereganatzen dituen jaialdi honen osagai nagusiak; finean kaleak eta arteak bat egin dute beste behin ere.

TESTUAK: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIAK: HODEI TORRES



Kaleak eta kaleko arteak protagonista









Maria Goiricelaya Buron Antzerkigilea

«Antzerkia eraldaketa sozialerako tresna moduan ulertzen dugu»

Maria Goiricelaya Buron antzerkigile, zuzendari eta sortzaile getxoztarrak urte oparoak bizi ditu. *Altsasu, Yerma, Nevenka* edo *Filtro* bezalako lanakaz, antzerki politiko eta dokumentalaren eremuan erreferente bihurtu da. *La Dramatica* Errante konpainiaren sortzaileetako bat da Ane Pikazagaz batera, eta sorkuntzaz gain, programazio eta kudeaketa lanetan ere badabil: besteak beste, Oliteko Antzerki Jaialdiko zuzendaritza artistikoan. Orain, azken urteetako abiadura barneratu eta etorkizunari begira erabakiak hartzeko unean dagoela azaldu du.

TESTUAK: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIAK: HODEI TORRES ►

Zure ibilbideari begiratuta —obrak, sariak, zuzendaritza-lanak, jaialdiak...— etenik gabeko bidea izan dela dirudi. Zein unetan zaudete orain? Oso bide zoroa izan da bai. Orain, neurri batean, gertatu den guztia ulertzen eta barneratzen saiatzen ari naiz. Azken urteak oso politik izan dira, baina abiadura horretan askotan ez duzu astirik gertatzen ari denaz benetan gozatzeko. Orain saiatzen ari naiz momentu gehiago disfrutatzen, presentego egoten eta bizitzen. Azken finean, benetako pribilegioa da maite dudan honetan lan egin ahal izatea.

Yermak, zuen azken lanetako batek, antzokitik pantaila handira egingo du salto. Nola sortu zen aukera hori? Oso modu naturalean gertatu zen. *Yerma* 2021ean estreinatu genuen Sala BBKn, eta oso harrera ona izan zuen: publikoaren aldetik, kritikaren aldetik, sarien aldetik... Anek eta biok ikusi genuen istorio hori pantaila handian kontatua izatea merezi zuela, eta Lara Izagirrerekin elkartu ginen, proposamena aurkeztu genion, eta berehala esan zigun baietz. Hortik aurrera, lau urteko lana izan da gidoiarekin. Poliki joan gara, bai, beste proiektu asko ere bagenituelako martxan, eta horiek ere arreta eskatzen zutelako. Baina oso pozik gaude.

«Antzerkia plazaren antzeko espazio bat da niretzat, foro bat. Ikuskizuna amaitzen denean sortzen den elkarrizketa interesatzen zait. Antzerkia, niretzat, ez da soilik emozioa edo entretenimendua; pentsamendu kritikoa aktibatzeko tresna bat ere bada»

Orain, filmaketa amaitzen ari dira Bilbon, eta gero Greziara joango dira azken sekuentziak grabatzera. Niretzat mundu berri bat irekitzea izan da: zinemarena. Nik Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nuen, baina zinema nahiko bazterrean neukan. Orain, bat-batean, pelikula bat egitea niretzat oso esperientzia harrigarria eta polita izaten ari da. Konplexua izan da, baina oso aberasgarria.

Nolakoa izan da aldaketa hori? Niri bakarrik idaztea gustatzen zait, batez ere testuez, gidoiez edo dramaturgiak ari garenean. Horregatik, lehen aldia izan da film bateko gidoia idazteaz gain, beste norbaitek ere egiten nuela lan, Lararekin, lau eskutara egiten nuela. Larak ikuspegi zinematografiko askoz zabalagoa dauka nik baino; ez alferrik bere hirugarren filma da zuzendari moduan. Beraz, asko ikasi dut. Ez dakit epe laburrean izango den, zinemak denbora asko eskatzen duelako, baina, zalantzarik gabe, berriro errepikatuko nukeena. Ni ohituta nago urtean bi edo hiru gauza ekoiztera edo estreinatzerara, eta lau urte gidoi bat idazten egotea oso luzea egiten zait. Baina ulertzen dut zinemak beste denbora batzuk dituela, beste ekoizpen modu batzuk, eta oso esperientzia ederra izan da.

Yerma aipatu duzu, baina azken urteotan arrakasta nabarmena izan dute obra asko ekoiztu dituzue: *Nevenka*, *Filtro*, *Altsasu...* Bada bereziki maite duzun lanik? Bai, *Altsasu* esango nuke. Nik uste dut nire ikuskizun ikonikoa dela. La Dramatica Errante konpainia bezala sinatzen genuen lehen ikuskizun ofiziala izan zen. Anek eta biok ekoiztera salto egin genuen, oso ondo jakin gabe zer gertatuko zen. Pentsatzen genuen 15 emanaldi egingo genituela, baina 90etik gora atera ziren azkenean. Lehen aldiz nazioartean ere aritu ginen ikuskizun horrekin gainera.

Lan polemikoa izan zen, baina asko identifikatzen gara horrekin, eta oso zoriontsu sentitzen gara, konpainiaren filosofia eta egiten dugun antzerki politiko mota oso ondo ordezkatzeko dituelako. Horregatik, lan bati kariño berezia diodala esan behar badut, zalantzarik gabe *Altsasu* izango litzateke.

Zure lanetan oso presente daude memoria, indarkeria, zaurgarritasuna, gatazka politikoak edo botere harremanak. Zerk erakartzen zaitu gai horietara? Alde batetik, nire kazetari ibilbidetik datorren zerbait dago. Dokumentalaren alde hori asko interesatzen zait: antzerki-dokumentala, dokumentazio-lana, ikerketa-prozesu luzeak, testigantzak, transkripzio judizialak... Hori guztia asko gustatzen zait. Bestetik, Anek eta biok antzerkia eraldaketa sozialerako tresna moduan ulertzen dugu, baina batez ere eztabaida eta hausnarketa sortzeko tresna moduan. Gaiak politikoak edo polemikoak dira galderak bota nahi dizkiogulako publikoari. Ez dugu nahi antzerkia ziurtasunak baieztatzeko leku bat izatea; kontrakoa, ziurtasun horiek desmuntatzeko lekua izatea interesatzen zaigu.

Gustatzen zait ikuslea bere ideietatik kanpo kokatzea. Eszenatokian entzutea, agian, bere ideologia politikotik urrun dauden gauzak; edo hasieran onartuko ez lituzkeen diskurtsoekin topo egitea. Horrek seduzitzen nau: ea enpatia pizten den, ea ez den pizten, ea ikusleak bere pentsamendua berriro aztertzen duen...

Zuretzat antzerkia entretenimendua baino askoz gehiago da, beraz? Antzerkia plaza-aren antzeko espazio bat da niretzat, foro bat. Ikuskizuna amaitzen denean sortzen den elkarrizketa interesatzen zait. Esaterako, *Altsasu* ikusi eta gero norbaitek esan dezake: «Guardia zibilaren diskurtsoarekin ez dut bat egiten», edo «amak esaten duenarekin bai konektatu dut», edo «hemen zalantzak sortu zaizkit». Hori da interesgarria: gure pentsamendua kolokan jartzea. Antzerkia, niretzat, ez da soilik emozioa edo entretenimendua;



Besteak beste,

Antzerkiaren helburua

«Gauza batzuk mindu egiten gaituzte, kezkatzen gaituzte edo haserretzen gaituzte, eta horiei buruz hitz egin behar dela sentitzen dugu. Gizarte bezala aurrera egiteko, pentsamendu kritikoa aktibatu behar da»

pentsamendu kritikoa aktibatuzeko tresna bat ere bada.

Filtro lanarekin ere ildo horretan ibili zarete, ezta? Bai. Orain justu Filtro lanaren bira amaitzen ari gara. Konpainiaren lehen koprodukzio internazionala izan da, eta Montevideoko *Filtro* ospitaleko gertakariei buruzkoa da. Hiru ETAkideren estradizioarekin lotuta dago, eta Uruguako herria kalera atera zenean, manifestazio hartan bi pertsona hil ziren poliziak herritarren aurka kargatu zuelako. Aneri eta bioi badira min ematen dituzten, haserretzen gaituzten edo zauritzen gaituzten gauzak. Eta pentsatzen dugu horiei buruz hitz egin behar dela, gizarte moduan aurrera egiteko eta pentsamendu kritikoa aktibatuzeko. Gero bakoitzak bere kokapen ideologikoa izango du, baina munduari mina eragiten dioten gaiez hitz egitea beharrezkoa dela uste dugu.

Kazetaria izan zinen urte batzuetan. Zure gaur egungo sorkuntzan badago kazetari-tzatik geratu zaizun aztarnarik? Bai, guztiz. Nik beti esaten dut kazetaritza nire beste bizitza izan zela, nire iragan iluna, eta ez naizela inoiz itzuliko, baina badago hortik datorren zerbait: ikertzeko gogoia, jakitekoa, kontakti-



Goricelayak Max Saria jaso zuen iaz, antzerkirako egokitzapen edo bertsio onenari, *Yerma* lanagatik.

zun ofizialetik kanpo dagoen testigantza bilatzekoa. Obra bat idazten dudanean, ez zait gustatzen soilik informatzea; askoz gehiago gustatzen zait «desinformatzea». Hau da, material mota guztiak hartzea, oso iturri desberdinetara jotzea. Ezkerreko hedabide batetik eskuinekoenera joatea, ikusteko nola kontatzen duen bakoitzak albiste bera, non dagoen gezurra, non manipulazioa, non dauden puntu beltzak. Interesatzen zaidana ez da kontakizun ofiziala. Interesatzen zaidana da inork jaso ez zuen pertsona horren lekukotza, edo argitara ateratzea komeni ez zelako lurperatu zuten dokumentua. Horrelako elementuek osatzen dute, nire ustez, «egia» deitzen dugun horren bertsio zabalago bat; baina egia hori inork ez dauka erabat bere esku.

Ia hamarkada bat pasatu da zuk eta Ane Pikazak La Dramatica Errante sortu zenutenetik. Nolakoak izan dira urte hauek? Lehenengo, zigilu moduan sortu genuen. Anek eta biok beste erakunde batzuentzat lan egiten hasi ginenean hainbat gauza egin genituen. Gero, handi egiteko erabakia hartu genuenean, enpresa sortzeko eta «ezkontzeko» erabakia hartu genuen. Hori 2021ean izan zen, testuinguru txarrean gainera: pandemiaren osteko garaian. Eta hor jaio zen *Al-*

Nola ikusten duzu emakumeen presentzia antzerkian?

«Ni sortzaile pribilegiatu moduan aitortzen naiz, gure aurreko belaunaldiak asko borrokatu behar izan zuelako erabaki eta ardura gune batzuetara iristeko. Gazteagoa nintzenez nire erreferente gehienak gizonak ziren, sortzaile zoragarriak, noski, baina zaila egiten zitzaidan emakumeak topatzea maila horretako antzerkigintzan. Orain, egoera asko aldatu da sorkuntzan. Nire inguruan emakume sortzaile eta zuzendari bikainak ditut: Marta Pazos, Andrea Jimenez, Noemi Rodriguez, Lucía Carballal, Maria Velasco... Hala ere, uste dut kudeaketan oraindik egiteko asko dagoela».

tsasu. Pixka bat kamikazeak izan ginen: enpresa bat sortu genuen inork askorik espero ez zuen ikuskizun batekin, eta putzu eder batean sartu ginen.

Urteekin konpainia hazten joan da, eta familia txiki bat sortu dugu gure inguruan lan egiten duten pertsonekin. Gure taldeak ahalik eta egonkorrenak izatea saiatzen gara. Gainera, kudeaketa kulturala feminismo transbertsal batetik ulertzen dugu, zaintza erdigunean jarrita. Gure antzerkia egiteko modu propioa bilatzen ari gara, baita kulturaren barruan parte hartzeko modu propioa ere.

Oliteko Antzerki Jaialdiko zuzendaritza artistikoa ere zuen esku egongo da beste lau urtez. Zer esan nahi du horrek zuentzat?

Bai, Ane eta biok berriz izango gara jaialdiaren zuzendaritza artistikoan beste lau urtez. Nik ez dut uste norbera kargu publiko batean betirako geratu beharko litzatekeenik; halako postuek arriskua dute denborarekin okertzeko edo perbertitzeko. Baina Anek eta biok oraindik indarra, gogoia eta, batez ere, proiektua genuen jaialdirako. Horregatik aurkeztu ginen berriro. Guretzat oso polita da Oliten jarraitzea, jaialdi baten zuzendaritzak ere baduelako alde sortzaile bat: sorkuntza hutsa alde batetik dago, eta kudeaketa bestetik; bioi asko gustatzen zaizkigu bi aldeak. Historikoki antzerki klasikoaren jaialdia izan da. Guri klasikoa interesatzen zaigu, noski, asko gainera, baina jaialdia hartu genuenerako jada norabide aldaketa bat emana zuen. Guk aldaketa hori sendotu dugu. Orain, dramaturgia berrien eta lengoia berrien alde egiten duen jaialdia da. Programatzen den guztia egile bizi eta garaikideena da. Gainera, konpromisoa hartu dugu programazioaren % 50 baino gehiago emakumeek zuzendutako edo idatzitako lanek osatzeko.

Zertan ari zarete orain lanean? Orain, Sala BBKren hurrengo ekoizpena idazten hasi naiz. Ni, gainera, Bilboko Sala BBK-ko aholkulari artistikoa ere naiz. Anek eta biok zuzendu egingo dugu ikuskizuna, eta antzerkia eta kirola uztartuko ditu. Athletic Fundazioarekin ari gara lanean; izan ere, Athletic izango da abiapuntua, baina kirolaz harago hitz egin nahi dugu: integrazioaz, aniztasun kulturalaz, identitateaz eta perteneziaz. Futbola hartuko dugu galdera batzuk planteatzeko: nor sartzen da San Mamesen? Nork ikusten ditu partidak beste leku batzuetatik? Futbola benetan integrazioerako espazio bat izan daiteke? Eta ondo ari gara egiten? Athleticen badago elementu bat oso inklusiboa eta oso esklusiboa aldi berean dena. ◀

Ekaina

Barrika

Ekaina, 12, barikua

Inguru Minguru tailerrak
17:00 | Ander Deuna aretoan

Ekainak 18, 24 eta 26

Partaidetza bidezko aurrekontuak

Saio-informatiboak egingo dituzte herritik.

Berango

Ekainak 6, zapatua

Tor magoa: Amarru
12:00 | Moreaga parkean

Erandio

Ekainak 13, zapatua

Trabudu Dantzari Taldearen 50. urteurrena
11:30 | Mendiguren plazan

Ekainaren 17tik 21era

Kirol Astea

Kirola, osasuna eta aisialdia denentzat.

Getxo

Ekainaren 4tik 27ra

Erakusketa: Lur gabeak
Romo Kultur Etxean

Unai Aranazadi dokumentalista eta argazkilaria erakusketa.

Ekainak 7, domeka

Antzerkia: Alai familian
18:00 | Muxikebarrin

Nolakoa da familia normal bat?

Ekainak 19, barikua

Kontzertua: Maite Larburu
20:00 | Muxikebarrin

Balkoitik balkoira 2026

21:30 | Algortako Portu Zaharrean
Oihana Bartra eta Andoni Egaña bertsolariakaz.

Ekainak 28, domeka

Antzerkia: Munstro Rosa
18:00 | Muxikebarrin

Gorliz

Ekainak 13, zapatua

Kirol Eguna
Herriko kaleetan

Herrian praktikatzen diren kirolak ezagutzeko eta probatzeko aukera emango dute.

Leioa

Ekainak 8, astelehena

Adin-adin bertso-saioa
17:30 | Kultur Leioan

Paule Loizaga eta Unai Mendiburu bertsolariakaz.

Ekainak 12, barikua

Musikalera 2026
18:00 | Leioako kaleetan

Ikasleen ikasturte amaierako emanaldia.

Ekainak 13, zapatua

Jota Txapelketa 2026
12:00 | Elexalde plazan

Lemoiz

Ekainak 6, zapatua

Uribe Kostako Emakumeak abesbatzaren emanaldia
20:00 | Lemoizko elizan

Ekainak 28, domeka

Etzandarri Mendi Taldearen irteera

Iturrigorri mendira txangoa.

Plentzia

Ekainak 13, zapatua

Plentzia eta Gorlizko Gazte Eguna

12:30 | Ontziola plazan
Egun osoko egitaraua egongo da.

Sopela

Ekainak 12, barikua

Kontzertua: Enbor arnasa
20:00 | Auzoetxean

Ekainak 17, eguaztena

Panderojoleen emanaldia
19:00 | Kurtzio kultur etxea
Ikasturte amaierako emanaldia.

Urduliz

Ekainaren 18tik 21era

Link Up
Iparralde frontoian
Ekitaldi teknologikoa.

Ekainak 19, barikua

Kubaren aldeko ekimena
19:00 | Txiberri tabernan
Joseba Sarrionandia eta Jon Maiagaz.

Ekainak 27, zapatua

Azoka solidarioa
10:00 | Antsonekoa plazan
La Cuadri del Hospiri dohaintzan emango diote batutako dirua.

HONTZA EXTREM

DEHONTZAKO ABENTURA PARKEA

www.hontzaextrem.com



ZATOZI!

EZ DA EDOZEIN PAREKOA...
NATURAL TASUNEZ
PAREGABEAK BAIZIK

633.468.947
Oleta bidea · OTXANDIO · BIZKAIA

Lehen/Orain **Plentziako portua 1950-1970 artean**



ITURRIA: GERMAN ELORZA ARRIETA

Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
German
Kortabarria
Igartua

DOINUA
Mundu honetan
holako gauzak

ARGAZKIA
Hodei Torres

Lemoiz

*Itsas bazterrak gura zituzten
nuklearrez hornituak
eta ozenki erantzun zien
«Nuklearrik ez!» oihuak,
Euskal Herria zehartu zuen
aldarrien olatuak...
ezin ahaztu bide ertzean
geratu ziren gorpuak...
Zenbat gomuten gordailu diren
bi kupula ugertuak!*

*Zentzugabeko proiektu hura
ez zen burutu, azkenean,
eta hogeitaz, denon artean,
pagatu dugu ordainean;
baina guztiok ez gara sartzen
nonbait neurri berdinean
eta Iberdrolak ez du ordaindu,
kalte-ordainen izenean,
eragin zuen txikizioa
Barasordako gunean.*

*Porlan-burnizko zerraldotzarrak
itotako itsas hegia
ezinezkoa ei da le(he)nera
itzultzeko lantegia,
baina notizi pozgarrieekin
datorkigu albistegia:
birziklapenak konponduko du
Lemoizko aberia
eta zentrala bihurtuko da
mihi-arrain haztegia!*



Kodainak sortutako habitat

Oraindik gure ingurunean badaude baserriari lotutako habitat izugarri biodibertsuak, nahiz eta sarritan oharkabean pasatzen diren. Neguan kurlinta eta hegabereren atsedan leku, udaberri eta udan lore- eta intsektu-eztanda eta baserriarraren lan-eremu. Segaldiaren ostean, miru eta zikoinak ehizatzerako gerturatuko dira. Ingurune horiek sega-belardiak dira eta landazabal atlantiarraren muina sortzen dute.

INÁKI LARRETXI GALLASTEGI • LUKA MELENDEZ ARTEAGA ▶


Eguno Uribe Kostan paisaia irekiak ez dira duela hamarkada batzuk bezain ohikoak. Aspaldiko baratzeek, fruta-arbolen landaketek, otatzek, eta arto zein gari soroek (bai, garia Bizkaian) habitat kultural aberatsak definitzen zituzten paisaia ardaztuz, gizartearen beharrekin batera aldatuz joan zirenak halaberrez. Bada, dena dela, oraindino habitat horien ordezkari batek dirau nola edo hala: sega-belardiak.

Sega-belardiak kodainei eta, teknologiak aurrera egin ahala, traktore zein bestelako makinariari esker mantendu dira. Izan ere, eta aipatutako gainontzeko habitat eta paisaia-unitateak bezala, gizakiak sortu eta




Polinizatzaile batzuek argazkiko orkideoa erabiltzen dute lo egiteko eta babesteko (Barruan begira ezazu!).

mantentzen ditu bere tokian tokiko eta momentuan momentuko beharrak asetzeko. Aipatutako belardien kasuan, batez ere abereek neguan bazka izan dezaten ebakitzen da belarra. Kokapena eta urteko klimatologiaren arabera, sega-belardiak behin, birritan edo hirutan ere moztu daitezke apiriletik urrira, eta noizbehinka abereek zuzenean larratu ditzakete ere. Harrigarria eta kontraesana dirudien arren, ebaketa horiek sega-belardien biodibertsitatea mantentzea edota emendatzea baimentzen duten faktore-gakoa dira. Hain zuzen ere, segatzeek belar espezie dominanteak gehiegi hedatzea eta baliabideak monopolizatzea ekiditen dute, gainerako espezieei bidea erraztuz. Hortaz gain, sega-belardiak zein soroak hesi biziz edota zuhaitzak erabiliz zedarritzean, mo-



Landazabal atlantiarraren eraldaketa azkenengo 30 urteetan (Gorliz, Lemoiz eta Plentzia artean kokaturiko Berreaga auzunea).



aberatsa: sega-belardiak

saiko biologiko aberatsa sortzen da eta espezie askoren biziraupena ahalbidetzen duten babeslekuak eratzen dira. Hala izanik, mo-saiko edo kultur paisaia horri landazabal atlantiar deritzo.

Sega-belardiak Europar Batasuneko Habitaten Zuzentarauan jasota daude desgertzeko arriskuan daudelako, arku atlantiarreko habitat adierazgarrietakoak direlako eta suposatzen duten biodibertsitate-gordailu itzelagatik. Hori horrela, mehatxu nagusia lurren erabileren aldaketak dira: alde batetik, abere-kopurua murrizteak sega-belardiaren azaleraren murrizpena dakar eta, bestetik, abeltzaintzaren beherakadarekin batera lantzarrek urbanizatzeko edota pinu-zein eukalip-to-landaketak ezartzeko lursail bihurtzen dira.

Udaberri-gingan, sega-belardien sasoi gorenena da eta aukera ona daukagu gerturatu eta dozenaka espezieren loraldiaz eta kolore-etzandaz gozatzeko: San Joan lore handi eta zuriak (*Leucanthemum* sp), *Lotus corniculatus* lekalearen lore horiak, *Silene*

Sega-belardiek duten garrantzi natural, kultural zein estetikoaitortzea eta balioestea funtsezkoa da.



Sega-belardia loraketa-garaian. San Joan loreak eta orkideoak beha daitezke.

flos-cuculi espeziearen izar formako lore arrosak, orkideo ezberdinak... soilik batzuk aipatzearren.

Bide batez, sega-belardietara hurbiltzea bizipen akustiko sakona da ere, animalia askoren soinuak entzun daitezke eta; hala nola, kilker eta matxinsaltoa kir-kirra, polinizatzaileen aurrera eta atzerek sorturiko burrunba, elaien eta ihi-txorien kantu alaiak... Segaldiaren ostean, berriz, ez dugu aipatutako oparotasuna aurkituko, baina bestelako ikuskizunez gozatu ahaliko dugu: belatz gorriak, zapelatzak, zikoinak edota azeriak (geurean lukiek) lursail biluztu horietara gerturatzen dira narrasti eta mikroogaztunez elikatzeko asmoz. Hori guztia gutxi balitz, neguko itxurazko apaltasunean kurlintak, hegaberak eta gurean negutarrak diren bestelako hegatiak ikus ditzakegu atsedean hartzen.

Horrenbestez, sega-belardiek duten garrantzi natural, kultural zein estetikoaitortzea eta balioestea funtsezkoa da, uriboztarron nortasunaren eta ondarearen nahitazeko parte baitira.

Landazabal atlantiarra: belardiak, hesi biziak eta zuhaiztiak.



Ander Basaldua eta Saioa Iribarren Goitibera konpainia

«Kaleko antzerkia aretokoak baino demokratikoagoa da»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

Goitibera Antzerki Konpainia ez zen egun batetik bestera sortu. Ander Basalduak dioenez, 2014a erabiltzen dute erreferentzia gisa, «urte jakin bat jartzeagatik», baina konpainiaren hazia lehenagotik zetorren. Basalduak eta Saioa Iribarrenek Bartzelonan ikasi zuten, Lecoqen pedagogiari lotutako eskola batean, eta han hasi ziren antzerkia beste ikuspuntu batetik ulertzen: testutik baino gehiago, gorputzetik eta mugimendutik.

«Gure eskola sorkuntza eskola bat zen», azaldu du Basalduak. Ez zen aktore lana lantzeko gune hutsa: antzerki fisikoa, espazioa, mugimendua eta sorkuntza zeuden erdigunean. Iribarrenek ere argi du esperientzia hark erabat markatu zuela euren egiteko modua: «Guretzat normalena ez da testu batetik abiatzea; testua gero etortzen da».

Horixe da Goitiberaren *modus operandi*-a; hau da, lehenik jolasten dute, mugimendua lantzen dute, eta ondoren etortzen da testua, baldin badator. Umorea ere antzeko zerbait gertatzen zaie. Ez da beti paperean agertzen. «Umorea fisikoa denean ezin duzu idatzi; gertatu egin behar da», dio Iribarrenek. Eta gertatzen denean, orduan hasten da benean funtzionatzen.

Konpainiaren ibilbidean, kaleak leku berezia hartu du. Hasieratik horrela planifikatu ez zuten arren, kale-antzerkian aurkitu zuten euren espazioa. Iribarrenek, «kalea topatzea kasualitatea izan zen, eta altxor bat da niretzat». Aretotako zirkuitua mugatua dela sentitzen du, batez ere konpainia txikiarentzat. Kanean, ordea, beste aukera bat zabaldu zitzaion: «Ikuslea ez da beti ikuskizunaren bila joaten, baina gehienetan ikuskizunak aurkitu egiten du».

«Edozein herriko plazara ateratzen zara, eta herria joaten da», dio Basalduak. Horrek ez du esan gura kanean dena erraza denik: ordutegi zailak, eguraldia, zarata edo espazioaren baldintzak hor daude beti. Baina kaleak publikoarekiko harreman zuzena eskaintzen du. Publikoa parean dago, eta berehala sumatzen da zer ari den gertatzen. Basalduak

Umorearen neurria

Goitiberaren lanetan umoreak pisu handia du, baina ez dute edozein modutara erabiltzen. Gai gogorrak landu dituzte, eta umoreak halako gaietara hurbiltzen lagundu dezakeen arren, neurria ondo hartu behar da.

«Umorea gauza oso potenteekin uztartu daiteke, baina zelan egin jakin behar da», dio Basalduak. Iribarrenek beste gako bat gehitu du: «Enpatia asko izan behar dugu bestearen minarekin». Hor kokatzen dute muga. Ez da gauza bera norbere minaz barre egitea eta bestearen mina erabiltzea.



Saioa Iribarrenek eta Ander Basalduak umorea erabil

beste arrazoi bat ere badu kale-antzerkia defendatzeko. Haren ustez, «kaleko antzerkia aretokoak baino demokratikoagoa da». Ez dago sarrerarik ordaindu beharrik, ezta aurretik kultura ohitura jakin bat izan beharrik ere. Plaza batetik pasatzen den edonor gera daiteke, begiratu, barre egin, ulertu edo ez ulertu; baina, behintzat, zerbait jaso.

EUSKARA HAUTU PROPIO GISA. Euskararen inguruan ere antzeko galderak sortzen zaizkie. Goitiberak euskaraz sortzeko hautu kontzientea egin du, eta erabaki horrek euren bidea markatu du. Basalduaren ustez, kaleko eta publiko guztientzako ikuskizunetan euskaraz gehiago lagundu die mugatu baino. Iribarrenek, ordea, ñabardura egin du: «Alde batetik ateak ireki dizkigu, bai, baina beste batzuk itxi dizkigu baita».

Gaztelaniaz aritzeak aukera gehiago emango lizkieke Espainiako zirkuituan mugitzeko, baina Goitiberak bestelako apustua egin du. Ez erosoena, beharbada, baina bai kontzientea. «Azkenean, erabaki genuen euskaraz sortu eta Euskal Herrian euskaraz lan egitea», dio Basalduak.

Hala ere, Iribarrenek ez du euskara muga gisa ulertu gura. Euskaraz ez dakiten ikusleek ikuskizunak ez ulertzeak pena ematen diola aitortu du, baina Goitiberaren antzerki fisikoak bide bat ireki die. «Istorioa publikora iristen dela konturatu ginen», dio. Mugimenduek, keinuek eta umore fisikoak hizkuntzaren gainetik ere komunikatu dezakete.



Irakurri ezazu
elkarrizketa osoa
www.hiruka.eus
webgunean edo goiko
QR kodigoa
eskaneatuta.



zen dute, batez ere, euren ikuskizunetan. © HODEI TORRES

Iribarrenentzat, beraz, erronka ez da euskaraz sortzeari uztea, hizkuntza hau horretatik abiatuta publiko gehiagorengana iristeko bideak asmatzea baizik. «Azkenean dena ez da testua ulertzea», dio, «gorputzak ere bere hizkuntza baduelako».

Euskarazko sorkuntzaren inguruan, ordea, oraindino ere mesfidantza sumatzen dute. Iribarrenek argi du badagoela euskarazko antzerkia bigarren mailakotzat hartzen duen begirada bat. «Euskarazko antzerkia ez dago gaztelaniazkoaren mailan» dioen epaiketa bat dago, haren ustez. Baina berehala gehitu du: «Eta ez da horrela».

ANTZERKIA, ERALDATZEKO TRESNA. Zailtasunak zailtasun, biek argi dute zergatik egiten duten antzerkia. Ez dute artea apaingarri gisa ulertzen, ezta umorea entretenimendu huts gisa ere. «Gure lana eraldatzeko tresna gisa ikusten dugu», dio Basalduak. Iribarrenek antzera azaldu du: «Ez da polita delako bakarrik; gizartearentzat eta bizitzarentzat tresna bat delako baizik».

Ildo horretatik ari da Goitibera konpainia lanean: gorputzetik, kalean, euskaraz eta umorez. Baina, batez ere, publikoagaz topo egin guran. Plazan, aretoan edo herri txiki bateko jaialdian. Testua ulertu ala ez, gorputzak hitz egiten duenean, zerbait gertatzen delako beti. ◀



Gure ikasleen ahotan



«Mondragon Unibertsitatea bere ikuspegi praktikoagatik aukeratu nuen»

UNAI MENIKA

Herria: Sopela

Egin dituzun ikasketak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Sopelako Ander Deuna ikastolan.

Ikasten ari zaren gradua: Humanitate Digital Globalak.

Zaletasunak: Humanitate digitalak, berrikuntza soziala eta psikologia.

Humanitate Digital Globalak - HDG graduko 4. mailan zaude, zergatik aukeratu zenuen gradu hau? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

HDG aukeratu nuen gehien interesatzen zaidana uztartzen duelako: humanitateak eta alderdi digitala. Teknologia gizartean, kulturean eta komunikazioan duen eragina ulertzea erakargarria iruditzen zitzaidan, ikuspegi kritiko batetik gainera. Gradua proiektu errealetara bideratuta egoteak ere motibatzen nau. Mondragon Unibertsitatea bere ikuspegi praktikoagatik eta gertuko giroagatik aukeratu nuen. Bilboko (Zorroztzaurre) campusa eta ikuspegi globala ere erakargarriak izan ziren.

Nolako izan da orain arte bizitako esperientzia? Esperientzia bizia baina oso positiboa izan da. Hasiarik lan praktikoa eta talde dinamika ugari daude. Hobeto antolatzen, ideiak argiago komunikatzen eta helburu errealekin lan egiten ikasi dut. Gainera, lehen ezagutzen ez nituen arloak deskubritu ditut. Maila akademikoan eta pertsonalean hazi naizela sentitzen dut, eta egiten dudanak mundu errealekin lotura du.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Metodologia praktikoa da, proiektuetan eta eginez ikastea oinarritua. Erronketan oinarrituta lan egiten da, taldean eta etengabeko lan-entregan bidez. Ikasteaz gain, ikertu, probatu, huts egin eta hobetu egiten da. Sormena eta irtenbideak bilatzeko gaitasuna baloratzen dira. Ikasteko metodologia aktiboa erabiltzeaz gain, lan mundura hurbiltzen gaituzten proiektuetan ere aritzen gara.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaidana?

Giro hurbila da gehien gustatzen zaidana; ez zara zerbaki bat. Irakasleekin harreman zuzena dago. Gradua askotarikoa da eta proiektu errealetan lan egiteak ikaskuntza sendotzen du. Bilboko campusa modernoa eta sormenez bete da. Oro har, mugimendua eta ekiteko gogoia dagoen lekua da.

Praktikarik egin duzu? Nolakoak izan dira?

Bai, Tecnalian egin nituen, eta oso esperientzia ona izan zen. Ikerketa eta berrikuntzako ingurunea barrutik ezagutzeko aukera izan nuen. Benetako zereginetan parte hartu nuen, eritimo serioagoarekin eta helburu argiekin. Taldean egokitzen eta modu profesionalagoan komunikatzen ikasi dut.

Zer ekarpen egin dizu praktikak egiteak?

Praktikak lan munduaren ikuspegi erreala eman didate. Zer gustatzen zaidan eta zer ez hobeto ulertu dut. Konfiantza irabazi dut, eta talde lana, erantzukizuna eta komunikazioa landu ditut. Gainera, unibertsitatean ikasitakoa lan munduko kasuekin lotzeko balio izan dit.

Etorkizunari begira zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik ez daukat guztiz argi. Digitalarekin eta sozialarekin lotutako zerbaitetan jarraitu nahi dut, baina bide zehatza zehaztu gabe. Ikasten jarraitzea edo gustuko dudana arloan lan egitea baloratzen dut. Teknologia eta analisi soziala edo komunikazioa uztartzen dituen etorkizuna interesatzen zait. Gainera, unibertsitatean ikasitakoa lan munduko kasuekin lotzeko balio izan dit.

«Gure osasuna, dantza talde moduan, ez dago arriskuan»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

Itxartu euskal dantza taldearen historia ez da urte kopuru baten kontakizuna bakarrik. 50 urte esatea erraza da; zailagoa, ordea, urte horien atzean pilatu den guztia neurtzea: entseguak, plazak, bidaiak, jantziak, musika, ikerketa, belaunaldiak, eta, batez ere, herri baten kulturarekiko konpromisoa.

Asier Bilbaok, nagusien taldeko arduradun eta zuzendari teknikoak, argi kokatu du abiapuntua. «Nik uste dut punturik garrantzitsuenak Franco hil zela dela», dio. Frankismoaren ondoren, Euskal Herri osoan «berpizkunde bat» gertatu zela gogoratu du, eta giro hartan sortu zirela hainbat dantza talde. Itxartu ere testuinguru horretan jaio zen, kultura berreskuratzeko gogoak bultzatuta.

Hasieran, taldeak lokal bat izan zuen entseatzeko. Zapatu goizetan hasi ziren, baliabide handirik gabe, baina energia berezi bategaz. «Frankismoaren ondoren, jendeak gordeta zituen sentimenduak askatzeko nahia eta beharra zituen», azaldu du.

Bost hamarkada hauetan, ordea, Itxartu ez da hasierako molde berean geratu. Tradizioa lantzea ez baita jasotakoa errepikatzea bakarrik; ikertzea, ulertzea eta zaintzea ere bada. Une batean, taldeak galdera bat egin zion bere buruari: zer ari gara dantzatzen, eta nondik dator hau guztia? Hortik abiatuta, dantzen jatorria, jantziak, tresnak eta dantza-zeko moduak aztertzen hasi ziren.

«Dantzen jatorria zein zen jakin nahi izan genuen», dio Bilbaok. Informazio hori jaso, landu eta taldera ekarri zuten gero. «Gure dantza-zeko era moldatu genuen, gure jantziak aldatu genituen... tradizioari jarraituz». Horrela, errepertorioa ere zabalduz joan zen. Hasieran, inguruko dantzek pisu handiagoa bazuten ere, denboragaz Gipuzkoakoak, Bizkaikoak, Lapurdikoak eta Zuberoakoak ere landu dituzte. Itxartuk ez du tradizioa beirazko kutxa batean gorde gura izan; mugimenduan mantendu gura izan du.

Transmisioa, hala ere, ez da beti erraza izan. Boluntariorik oinarritutako jarduna da, eta horrek inplikazioa eskatzen du. «Iristen da momentu bat non dantzari gutxi geratzen diren», aitortu du. Gizartea aldatu egin da, eta gaur egun gazteek aukera ugari dituzte: futbola, ingelesa, musika... Eskaintza zabal ho-



Itxartu Dantza Taldeak Portu Zaharrean ospatu zituen bere 50 urteak. ITXARTU

Dibulgazioa helburu gisa

Itxarturen jarduna ez da plazan amaitzen. «Gure helburuen artean dibulgazioa eta euskara daude», azaldu du Asier Bilbaok. Euskal erromerien inguruko ikerketak egin dituzte, baita musikari lotutako lanak ere, eta ezagutza hori partekatzeko borondatea izan dute beti.



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.

ren barruan, dantza sarritan bigarren plano batean geratzen da. «Inplikazioa behar dugu».

Haatik, Itxarturen oroimenean badira bereziki markatutako uneak. Bilbaorentzat, garrantzitsua izan zen dantzak, jantziak eta lan egiteko modua berri zitu zuten garaia, baina bada oroitzapen are emozionalago bat: Euskal Herrikan kanpo dantzan hasia. «Niretzat politena kanpoan dantza egiten hasi ginenean izan zen», dio. Argentinan ere izan dira, Euskal Etxe batean, eta penintsulako hainbat lekutan ere dantza dute. «Kultura erakusteko aukera paregabea da», azpimarratu du.

Urteurrenak egitarau oparoa ekarri du: dantza-ekitaldiak ez ezik, txistulari, albokari eta trikitilarien topaketak ere antolatu dituzte. Helburua kaleak girotzea, eta herritarrek hurbiltzea da. Ospakizunak ospakizun, Itxartuk bere izaera herrikoia mantendu gura du. Herri-tik sortua eta herriari begira bizi den taldea da.

Etorkizunaz galdetuta, Bilbaok lasaitasunez erantzun du. Itxartu belaunaldi ezberdinek osatutako taldea da. «Guk etorkizuna dugu», dio. Ez da kexu ageri, alderantziz; taldearen egoeragaz pozik dago. Urtero dantza berri bat ateratzen dute, eta oraingoz bide horri eutsi gura diote. «Gure osasuna, dantza talde moduan, ez dago arriskuan».

50 urte bete ondoren, Itxartuk ez du iraganera begira bakarrik dantzatzen. Memoria darama oinetan, baina begirada aurrera dauka. Tradizioa ere horixe delako, ezta? Hau da, jasotakoa landu, bizirik mantendu eta hurrengo belaunaldiei ematea. ◀



Sopelako Jaiak

San Pedro eta Karmenak

2026

Ekainak 25-29

25-29 de junio

Uztailak 15-19

15-19 de julio



JANUS LESTER 🎵 ETZAKIT
XIBEROOTS 🎵 LA TXAMA 🎵 RISE TO FALL
XABI ABURRUZAGA + MEÑAKOZ
HIJA DEL NOPAL 🎵 ALBINA & DIVINA
THE CLAMS 🎵 MESCALINA 🎵 TRIKIDANTZ
MAMBO EXPRESS 🎵 ZINEMA PARADISE
CHERRY & THE LADIES 🎵 MANNY CALAVERA
MAKILHOTSAK 🎵 FOLKLORE BIZIAN
SUA 🎵 NONBAIT



INFORMAZIO GEHIAGO:
SOPELA.EUS

Kepa de Castro Surne Bilbao Basketeko jokalaria

«Ahaztu egiten zaigu esperientziaz gozatzea dela garrantzitsuen»

ANDER ZARRAGA ►

Saskibaloiko elite mailan Surne Bilbao Basket taldean estreinaldi borobila egin du Kepa de Castro leioaztarrak: ACB ligan jokatzeko lortzeaz gain, FIBA Europako txapeldun ere izendatu da. Esperientzia izugarria izan dela kontatutako 22 urteko jokalaririk, baina azpimarratu du urte askotako lanaren emaitza izan dela, eta oinak lurrean mantendu gura dituela; momentuaz gozatzea da bere helburua.

Aurten debutatu duzu Surne Bilbao Basketeko lehen taldeagaz, baina harrobien urteak eman dituzu hori baino lehen. Bai, hori da, aurten ACBn eta FIBAn debutatu dut Bilbao Basketeko lehen taldearekin. Hala ere, taldearen harrobien nago duela zortzi urte hasi nintzenetik. Azken lau urteetan lehen taldearekin entrenatzen aritu naiz, baina partidu ofizialetan aurten jokatu dut lehen aldiz.

A zer nolako urtea debutatzeko, ezta? Pasada bat izan da bai! Dena batera egokitu zait! Iaz amorru pixka bat eman zidan ez debutatu izanak, klubak bere historiako Europako lehen kopa irabazi zuelako, eta, beraiekin entrenatzen egon naizen arren, ez nuelako partiduetan jokatu. Pentsatu nuen ez zela errepikatzen, baina begira, zortea izan dut eta aurten berriro bizi izan dut. Izugarria izan da.

Nola bizi izan duzu finalera iritsi, irabazi eta titulua ospatzeko prozesu guztia? Ez dakit nola deskribatu. Duela 15 urte Bilbao Basket harmailatik ikusten nuen nire aita eta anaia-rekin, klubeko abonatuak ginelako, eta orain bertatik bertara bizitzen ari naiz. Aldaketa erradikala da, sinestezina. Hasieran, nire buruari galdetzen nion: «Zer egiten dut nik hemen?». Banekien minuturen bat edukiz gero partidua erabakita zegoenean izango zela, beraz, ikusle pribilegiatu baten modukoa izan naiz, baina barrutik eta beroketa eta prestaketa guztiak eginda, baina partiduko presio itzel hori gabe. Hala ere, taldekideek beti esa-



De Castrok Bilbao Basketeko 22 urtez azpikoan taldean jokatu du orain arte. BILBAO BASKET

Ikasketak

«Maila gorenean jokatu nahi dut, nire lanak ematen didan neurrian. Baina ikasketak ateratzea ukazina da; saskibaloiak huts egiten badu, zerbait eduki behar duzulako atzetik, eta etxean ere adi daude horrekin»



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.

ten dizute meritu bera duzula, gogor entrenatu duzulako eta bidaietan beraiekin egon zarelako. Beraz, orokorrean oso ondo pasatu dut, eta benetan berezia izan da ospatzeko aukera izatea.

Nolakoa da eliteko saskibaloiairen dinamika? Oso serioa da. Jaume Ponsarnaurekin goizez bakarrik entrenatzen dugu, baina goiz osoa ematen dugu entrenatzen. Horrez gain, bakoitzak badaki zer egin behar duen: fisioarekin egon, gimnasia joan... Beste mundu bat da. Ondo pasatzen duzu, baina ez zoaz kuadrillarekin bezala «kolegean». Askoz profesionalagoa da eta serio hartu beharra dago.

Zure ibilbideari erreparatuta nolakoak izan ziren zure hastapenak? San Bartolomen hasi nintzen minibasketen. Gero bi urte egin nituen Leioan haur-mailan, ostean beste bi edo hiru urte egin nituen Askartzan, eta azken zortzi urteetan Bilbao Basketen. Mugimendu pixka bat izan dut, baina beti inguru honetan. Leioako talde ia guztietatik pasa naiz! ►

Geografiako azterketa



JOANES ATXA Euskarari aterakontuk!

Urtero bezala, familia osoa elkartu gara pazko domekan, mahaiaren inguruan. Oso data aproposa da, haurrak opor-sasoian murgilduta, eta helduak jai-egunak gozatzeko prest. Nire lehengusuak Markel du izena. 14 urte ditu eta astebete barru azterketa du: geografia. Apunteak ditu esku artean. Alboan eseri naiz. Adi-adi. Eskola-liburuan, bi mapa. Espainia eta EAE: Andalucía, Sevilla, Ebro, Tajo...

Ez da ageri Baiona, are Nafarroa Beherea, Donibane-Garazi edo Maule. Ez da ageri Aturri, Errobi, are ùhaitza.

Alta, Markelen geografia liburua euskara hutsean dago. Markelek D ereduari ikasi du eta hala egingo du unibertsitatean ere (lana ez, noski, lana gaztelaniaz).

Markelen buruan, mundua eta euskara ez datoz bat. Munduaren banaketa serio eta funtzionala bat da, eta folkloreak diona beste bat. Ikasi du mundua geroz eta globalizatuago dagoela, informazioaren garaian bizi garela, baina inoiz ez du jakingo Euskal Irratiak zer diren.

Gaur Aberri Eguna da, Markelen familia abertzalea da, gaur «zerbait ospatzeko» dutela uste duen horietakoa. Dena du aldeko, eta, hala ere, ez daki Maule non den.

Muga: ikusezina bezain opakua.

Seguratasuna



ARANTZA GUTIERREZ PAZ Polimilitante feminista

Beste hainbat lekutan bezala, segurtasunaren diskurtsoa errotzen ari da gure eskualdean ere. Badi-rudi herritarren kezka nagusietako bat dela, etxebizitzarekin batera. Egia da: ez gaude seguru.

Munduaren egoerak ez ditu ematen seguruak sentitze-ko arrazoi asko, eta senti gaitzke burutik dauden hiruz-palau gizon zahar maltzurren eskuetan. Egoera klimatiko ere bizitzarako mehatxua da, eta gero eta zailagoa dugu muturreko eguraldiari aurre egitea. Gazteek ez dakite berezko bizitza-proiektua abiatzeko momentua noiz helduko den eta prekarietateak zoru itsaskorra eskaintzen die. Zaharrak bere aldetik beldur daude bizitzaren amaieran beharreko zaintza duina jasotzerik izango duten...

Seguratasunaz ari direnean, ordea, ez dira horretaz ari. Eskuin muturreko markoa erosi dute; defentsarako aurrekontuak igotzea, etxeak blindatzea eta polizia gehiago eskaintzen dizkigute, zerbitzu publiko hobek, etxebizitza eskuragarriagoa, ingurunearen eta pertsonen zaintza beharrean. Are maltzurrago; Goebbelsen teoriari jarraiki, etsai baten estrategia kolektibo zehatza seinatzen dute.

Inposaturiko beldurrak kikildu beharrean, ordea, gungan dago amua ez erantsi eta markoa iraultzeko indarra.

Uda bizi,
euskara eroso
ikasten



UDAKO EUSKARA-IKASTAROAK

**Uribe Kostako
AEK euskaltegia**

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztailean.

Leioa · 944 646 063 · lamia@aek.eus
Getxo · 944 304 734 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia · 946 773 607 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz · 946 773 646 · jentilbaso@aek.eus

☎ 688 746 776
📍 [uribekostakoak](https://www.uribekostakoak.aek.eus)
www.aek.eus

26/27 ikasturteko

**aurrematrikula
ABANTAILAK**

Orain!

aek
euskara praktikoa

20.rik
aurrera

APIRILA

21 22 23 24 25 26

27 28 29 30



EKAINA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

29

30.era arte

Egin
aurrematrikula



Iritzi-artikulu Lehiaketako onenak



Gezuraren abiadura, egiaren isiltasuna

XABIER PUIG RODRIGUEZ

Eskualdeko gazteei HIRUKAn lekua egiteko asmoagaz, Batxilergoko ikasleen lehendabiziko Iritzi-artikulu Lehiaketa egin dugu aurten. Horretarako, Unibertsitatera Sartzeko Probarako (USaP) –lehengo Selektibitatea– ikasturtean zehar prestatu dituzten artikuluak bidaltzeko eskatu diegu, eta trukean guk onenak argitaratu eta sarituko genituela agindu genuen.

Artikulu sarituek esku artean duzuen HIRUKA aldizkarian azaltzeaz gain, Otxandioko Hontza Extrem abentura parkerako sarrerak, Karpin fauna-ren babes-zentroa bisitatzeko gonbidapenak eta Sopelako Peña Txuri Surf Eskolan surf saioak jasoko dituzte.

Artikulu onenak zeintzuk diren erabaki duen epaimahaia punta-puntako hiru euskaltzalek osatu dute: Garazi Basterretxea idazlea, Joxi Arakama Getxoko Udaleko euskara teknikaria eta Gotzone Butron idazlea. Beraiek artikuluaren aberastasuna, koherentzia eta zulentasuna ebaluatu dituzte, besteak beste.

Bada hemen daude lehen lehiaketako honetako irabazleak. Mila esker parte hartu duzuen guztioi! ◀



oizean esnatzean askok gauza bera egiten dugu: mugikorra hartu eta pantaila piztu. Segundo gutxitan, mundu osoa agertzen zaigu esku-ahurrean: albisteak, iritziak, bideoak eta zurrumurruak. Informazioaren aroan bizi garela diote, baina sarritan zarataren garaia dirudi. Izan ere, askotan gezurra iristen da egia baino lehen. Esaera zaharrak dioenez, gezurrak hanka motzak ditu; gaur egun, ordea, sareek hegoak jarri dizkiote.

Buloak ez dira nahi gabe egiten. Politikan, desinformazioa gero eta gehiago erabiltzen da iritzi publikoa baldintzatzeko. Areago, gezurra behin eta berriz errepikatzen denean, egia dirudien itxura har dezake. Horrela elikatzen dira mesfidantza eta zatiketa, eta bide horretan diskurtso sinplistik eta faxismoaren antzeko ideiak berriro indartzen dira: etsai asmatuak sortuz, errudun errazak bilatuz eta gizartea gu eta haiek bezalako giza taldeetan zatituz. Izan ere, historiak behin baino gehiagotan erakutsi digu zer arrisku dakarten bide horiek.

Hala ere, buloen kalterik mingarriena sarritan ez da ideien eremuan gertatzen, pertsonen bizitzetan baizik. Zurrumurru batek norbait seinalatu eta bere izena gezur bati lotuta gera daiteke. Une batetik bestera, pertsona hori ezezagunen epaiaren menpe geratzen da: iruzkinak, susmoak, epaizko begiradak. Estigmak arrasto sakona uzten du; ez du soilik ospea kolpatzen, pertsonaren duintasuna bera ere zauritzen du. Askotan, horrek bakardadea, lotsa edo ezintasun sentsazioa eragiten ditu. Egia azaldu arren, itzalak geratzen dira, eta susmoak ez dira erraz desagertzen. Horregatik dio esaerak jaurtitako hitza geziaren parekoa dela: askatzen denean, ezin da berriro arkuan sartu.

Azken finean, erantzukizuna guztiona da. Mezu bat partekatu aurretik une batez gelditu, kontrastatu eta zalantzan jartzea ezinbestekoa da. Egia ez da beti begibistan ageri zaiguna; askotan isilpean geratzen da, motel eta epel airean hegan egiten. Baina, isiltasunean ere, gizarte libre baten zimendurik sendoena da. Hori buruan barneratuta, galdera ezin da alde batera utzi: zarataren katean parte hartu nahi dugu ala pertsona bakoitzaren duintasuna eta egia babesteko kemena izango dugu?

Aurten lehiaketa bat planteatu diegu Unibertsitatera Sartzeko Proba egin dute ikasleei: bidali zuen iritzi artikulua eta guk onenak aukeratu eta argitaratuko ditugu. Hauek dira lehen lehiaketa honetako artikulua hautatuak.



Iraultzek ez dute banderarik

UNAX URKIZA IGLESIAS

Iraultzek ez dute banderarik Aberria hizkuntza, kultura eta lurraldea bat da, bihotzean daramagun arima. Historian zehar defendatu izan da, eta jende askok bizitza eman du horren alde. Aberria gure nortasunaren zati natural eta sakona dela dirudi, gure sustraiak eta komunitatearen elkartasuna islatzen dituena. Baina nork sortu du aberria? Ba al gara gu jaiotzetik aberri baten parte edo gizarteak inposatu digun zeozer da?

Gu zitiok behar dugu zerbaiten parte izan, gure bizitza zerbaiten oinarrituta egotea, nor garen ulertzeko eta gure existentziari zentzia emateko. Gizakiok harremanen bidez eraikitzen dugu gure identitatea, eta komunitate baten barruan kokatzearen segurtasuna eta jarraipena ematen dizkigu. Sentimendu horrek lotzen digu ideia, sinbolo eta kontakizun kolektiboetara, geure burua bakarrik eta galduta ez sentitzeke.

Aberria edo nazioa burgesiak sorturiko fikziozko emozio bat da, hizkuntza edo tradizio baten izenean. Nahiz eta sentimendu moduan aurkeztu, naturatik urrun dagoen kontzeptu eraikia da. Bere funtzio nagusia argia da: langile klasea banatzea. Pertsonak nazio desberdinetan zatitzen direnean, eta nazioen arteko lehia sustatzen denean, ezinezkoa bihurtzen da langile klasea elkartzea bere benetako etsaiaren aurka, burgesaren aurka, borrokatzeko.

Troskismoaren ikuspegitik, nazioa eraikuntza politiko bat da, langile klasea benetako borrokatik urruntzeko. Aberriaren inguruko eztabaidek eta zatiketek gazte sozialisten arteko batasuna ahultzen dute. Historiak argi utzi digu hainbat egoeratan: sozialistak zatituta daudenean, kapitalismoak beti irabazten du. Kapitalak nazio askapenaren aldeko borroka askotan babesten du, klasearen batasuna oztopatzen duelako.

Egia da aberria edo nazioa garrantzitsua dela, gure kultura eta identitatea defendatzen duelako. Baina, askatasuna ez da bandera edo aberri baten bidez iristen, klasearen elkartasun eta ekintza kolektiboren bidez baizik.

Langile klaseak indarra du bere burua askatzeko, baina bakarrik elkartuta eta borroka kolektiboan askapen hori errealitate bihurtu dezakegu. Orain da unea, gazteok gure indarra batzeko, sistema honi aurre egiteko eta etorkizun berri bat eraikitzeko. Elkarrekin indartsuak eta geldiezinak gara. Borrokatu, antolatu eta mobilizatu! Gure esku baitago benetako askapena.



Ba al dago beste espezierik?

MAITE JUSTICIA BELIASHINA

Azken hamarkadetan, gizakiak galdetu izan du zer dagoen gure atmosferatik harago, izarretatik harago eta baita gure unibertsotik harago ere. Duela gutxi arte ez genuen galdera horien erantzunik, baina azken ikerketek uste duguna baino askoz gehiago erakutsi digute. Benetan gure espeziea bakarrik existitzen al da? Ba al dago beste bizitza motaren bat beste galaxia batean?

Lehenik eta behin, gure unibertsoaren dimentsio izugarria gogoratu behar dugu. Gu Esne Bidean bizi gara, eta galaxia hori izarrez beteta dago. Izar bakoitzak bere inguruan planeta bat orbitatzen duela kontuan hartuko bagenu, ia ezinezkoa litzateke existitzen diren planeten kopuru zehatza kalkulatzeko. Horrek aukera uzten du pentsatzeko agian planeta horietako batzuetan bizitza egon daitekeela.

Bigarrenik, azken hamarkadetan milaka exoplaneta aurkitu dira, hau da, beste izar batzuen inguruan biratzen duten planetak. Horietako batzuk «eremu bizigarri» deitzen den tokian kokatuta daude; horrek esan nahi du ur likidoa egoteko baldintza egokiak izan ditzaketela. Ura funtsezko elementua da guk ezagutzen dugun bizitza eredurako.

Azkenik, pertsona batzuek diote beste zibilizazio adimendunak existituko balira, jada froga edo seinale argiak izango genituzkeela. Hala ere, argudio horrek hainbat suposiziotan oinarritzen da. Lehenik, teoria honek zibilizazio horiek gurearen antzeko maila teknologikoa izango luketela eta gurekin komunikatu nahi izango luketela dio. Baina ideia horietako bat ez da zertan egia izan.

Ondorio gisa, nahiz eta oraindik ez dugun estralurtar bizitzaren froga erabakigarriarik, gaur egungo ebidentzia zientifikoek pentsarazten digute oso arraroa izango litekeela unibertsoan guztiz bakarrik egotea. Unibertso hain handi eta askotarikoan, ez al litzateke are harrigarriagoa izango bizitza behin bakarrik agertu izana?

Gazteon iritzia ere garrantzitsua da guretzat! HIRUKA ere zuena delako bidali zuen ekarpenak hiruka@hiruka.eus emailera noiznahi.



Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA




Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia, eta gauarekin zerikuria duen esaera zahar bat agertuko zaizu. Horretarako, erabili hizki-marrazki alfabetoa.

Bide batez, berehala asmatuko duzun esaera hori goiko marrazkiari lotuta dago, eta polit-polit margotu behar duzu.


HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA






Gaueko dominoa


Bete itzazu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan. Batez ere gauari lotuta ageri ohi diren sei gauza sartu behar dituzu fitxetan, komeni denean:



Aldea dagoi! Aurki itzazi bi irudien artean darduen aldeak. Hamahiru dira.




Sudokua



Bakortzei berre izena. Loru itxaski bakortzei berre izena.

Bete itzazu hutsuneak URPEKO hitza osatzen duten hitziak behar bezala ipiniz (U, R, P, E, K eta O). Gogoratu hitziak behin agertu behar dutela lerro, zutela bakoitzeko.



SOLUZIOAK: AURREKO SOLUZIOAK

Hirukoitza Sarda honetan hamahiru arrain mota dardude. Mota bakoitzetik bina arrain dardurkituko dituzu, batakik izan ezlik. Salbuespeneko arrain mota hori hirukoitzuta dago. Zein da?

ZERTARAKO BALIO DUTE LOREEK? (POLITAK IZATEAZ ETA ONGI USAINTEAZ GAIN)



JATEN DITUGUN FRUTA ETA BARAZKI ASKOTAN BILAKATZEN DIRA LOREEK.

BAINA, HORRETARAKO, POLINIZATUAK IZAN BEHAR DIRA.

POLINIZAZIOAN, LANDAREAREN ZATI ARREKO POLENA...

HAZIDUN LANDAREEN UGALKETARAKO EZINBESTEKOAK DIRA POLEN-ALEAK.

ANIMALIA POLINIZATZAILEEK, HALA NOLA INTSEKTUEK, HEGAZTIEK ALA SAGUZARREK...

...LANDARE BERAREN EDO BESTE LANDARE BATEN ZATI EMERA AILEGATZEN DA.



ORDAINETAN, LANDAREAK NEKTAR EDALONTZI GOZO-GOZO BATERA GONBIDATZEN NAU.

...EDO AIREAK EDO TA URAK GARRAIATU DEZAKETE POLENA.

HILABETE BATZUK BERANDUAGO...

LORE POLINIZATUAK TOMATETKO BILAKATU DIRA!



IKASI GEHIAGO POLINIZAZIOAZ ZIENTZIA KAIERA BLOGEAN.





Michael Ledema


Nongoa
Sioux Falls.

Adina
44 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Noiz heldu zinen?
2012an.

Noiz arte bertan?
Betiko.



Lurraldea
Hego Dakota.

Azalera
199.729 km².

Hiriburua
Pierre.

Biztanleria
886.667 (2020).

Hizkuntzak
Ingelesa.

Moneta
AEBetako dolarra (USD).

«Dakotan bizitzeko, bi negu biziraun egin behar dituzu»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

Hego Dakotatik Algortara iritsi zen Michael 2012an. AEBetan jaioa, Alemaniaren bizi izan zen urte luzez, eta egun Getxon bizi da familiagaz. Euskal Herrira etortzeko bidea Alemaniaren hasi zen: 2004an ezagutu zuen Nora, Erasmus garaian, eta egonaldi laburra izango zena zazpi urteko bizitza bihurtu zen. Gero, erabakia hartu behar izan zuten: Alemania, AEBak edo Euskadi. Azkenean, Euskal Herria aukeratu zuten: «Alemania ondo dago, baina hemen eguraldia hobea da».

Eguraldiarena ez da txantxa Hego Dakotatik datorrenarentzat. Ledemanek muturreko tenperaturak ditu gogoan: aste berean 40 gradu eta zero azpiko 40 izan ditzakete. «Han bizitzeko, bi negu biziraun egin behar dira», laburbildu du. Neguan, bi metro elur pilatzen badira etxe aurrean, norberak kendu behar ditu: «Ez dago laguntzarik». Algortan, ordea, beste bizimodu bat topatu du, eta seme-alabak izateak ere eragina izan zuen erabakian.

Kultur talkak ere handiak izan dira. Bere herrian, 1.000 biztanle ingurukoa, ez dago hemen

ulertzen dugun kaleko bizitzarik: «Kalean egoiteak ez du hemen duen esanahi bera». Aisialdia bestelakoa da: han golf-a ez da jarduera elitista; kamisetan eta txankletetan joka daiteke.

Hego Dakota azaltzeko, Black Hills eta Badlands aipatu ditu. Badlands «Grand Canyon txiki bat» bezala deskribatu du, baina kontakizunik harrigarriena lur azpian dago: Gerra Hotzean, misil nuklearrak ezkutatu zituzten bertako zelai zabaletan. Kanpotik etxe arruntak ziruditen eraikinen azpian kontrol guneak zeuden, eta lurpean, *Minuteman* misil sare bat. «Urte luzez konspirazio teoria zirudiena benetakoa da», dio Ledemanek. Egun, instalazio horietako batzuk bisitatu daitezke.

Gidabaimena eta ehizagaz ere alde handia sumatu du. 14 urteagaz gidatzen zuen, landa eremuan autoa eta traktoreak beharrezkoak direlako. Ehiza ere ez du zaletasun huts gisa azaldu: han, askorentzat, «janaria lortzeko eta etxea babesteko modu bat ere bada».

Elurra, distantzia amaigabeak eta isiltasuna atzean utzita, Ledemanek beste erritmo bat aurkitu du Algortan: ez hain muturrekoa eta ez hain bakartia, familia hazteko egokiagoa. ◀

HIRUKA lagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Donostiako Aquariuma

Donostiako Aquariumera bisita berezia egin gura? Itsaspeko mundua gertutik ezagutzeko sarrera bikoitzak ditugu zuretzat. Animatu eta parte hartu, zureak izan daitezke eta!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 21a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Ibaizabalen liburu sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, etxeko txikientzat irakurketa-plan ederra dugu, abenturaz eta istorio erakargarri zuzteko aukera paregabea. Galduko duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 21a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Jazzaldia Muxikebarrin

Uztailaren 1etik 5era, Getxok jazzaren erritmoa hartuko du jazzaldiaren 49. edizioagaz. Animatu, Muxikebarrin kontzertuetarako sarrera bikoitzak baititugu zure zain!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 21a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Gidabaimena Euskaraz



BERRIA!

WWW.GIDABAIMENAKEUSKARAZ.EUS
webgunean:

- testak online
- eskuliburuak eskuragarri



ateratzen baduzu,
gastuaren % 80
jaso dezakezu.

GEHIENEZ, 300 €

(15-23 urte)

Kontsultatu baldintzak



**Eta 100 euroko
3 erregai-txartel**
zozkatuko ditugu!

Gainera, 2026an azterketa eta prestaketa teorikoa euskaraz egiteak beste sari bat dakar:
BI ZIKLOMOTOR ELEKTRIKOREN ZOZKETAn parte hartzea, EAE mailan.*

Baldintzak:

- 15 urtetik gora izatea.
- Azterketa teorikoa euskaraz egitea 2026ko urtarriletik abenduaren 3ra.

Euskadiko Autoeskoletan Federakuntza
Federación de Autoescuelas de Euskadi



INFORMAZIO GEHIAGO:

Zure autoeskoletan edo
GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAN:
94 466 00 10 · euskara.zerbitzua@getxo.eus
www.getxo.eus/euskara

* kontsultatu baldintzak.